

anaitasuna

1976.eko Martxoaren 1ekoa
312. zenbakia 25 Pta.



EUSKALZANDIA
EUSKALZANDIA
EUSKALZANDIA

DEUSTUKO
HIZKUNTZ
ESKOLA



EUSKAL FRUITU BAT

EUSKAL HERRIKO eskualde guztietako lagunez osatua. Pedagogia, linguistika eta zientzi arlo ezberdinetan ongi jantzita dagoen gazte talde teknikoa.

FRUITU BAT, bai, eta jadanik heldua. Izerdi artean eta neke askoren ondoan lortu duguna.

HORIXE DA IKER, Euskal Herriaren onerako pen-satu, mamitu eta buruturiko erakunde bat.

Euskal liburuak, pedagogi textuak, haurrentzako ipuinak, euskara ikasteko metodoak, diskoak, kaseteak, posterrak, litografiak... hauk guztiok aurki ditzakezu gudan.

ZATOZ GUREGANA. Euskaldunoi ahal dugun guztian laguntza eskaintzeko gaude. Zeuen zerbitzuan gaituzu IKERren.



**HEZIKETA - ZERBITZU
ETA KULTUR - ERAGINTZ**

Bilbon, Zabalbide, 68-entrlo., eskuina.
Tif.: (94)4331615-4337169



zuk zabaltzeko gaude

AURKIBIDEA

3. Aurkezpena: ONGI ETORRI

4. TANTAKA:

Antton Inurritegi

J.M. Torrealdei

Xabier Gereño

Xabier Kintana

Juanjo Uranga

6. EUSKAL HERRIAN

Kultura

Hezkuntza

Baserría

Politika

Lana

Ipar Aldean

15. IBERIAN ZER

16. KANTZERRA

17. ERLUIOAZ

18. ELKAR IKUSKA

21. HIZKUNTZA

22. LIBURUAK

24. AISIAREN ORDUA

Zapaburu birbirtua

Urrezko astabelarriak

Gurutzegrama

Maketapena: Fernando

Marrakziak: Fernando

eta: Olariaga

Moldiztegia:

Elexpuru, hnos. S.A.

San Martín, 153

Zamudio



Euskaltzaindia ofizialki onhartu berri digute; Bartzelonan, hain zuzen. Holaxe irakurri dugu aldizkarietan. Eta poztu egin gara, nahiz eta, Madrileko gobernuak hori erabaki aurretik ere, euskaldunok Euskal Akademia haintzakotzat eduki.

Bai, Euskaltzaindia euskaldunontzat lehenagotik ere ba zen. Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Diputazioek aspaldian fundatua eta onhartua genuen, eta gerra ondoan, gaur berronhartu duen gobernu berberonen hasierakoak desonhartua izan ere bai. Berrogei urtetako bitarte honetan, batzuetan ixilka eta erdi ezkuterik, ageriago besteetan, gure hizkuntzaren akademiak lanean ihardun du beti, bere lemak dioenari —ekin eta jarrai— zintzoki segituz.

Zorionak Euskaltzaindia! Merezi zenuena, zeure ahaleginez, birlortua duzu azkenean. Ea ohorezko aipamenok laguntza eraginkorragotan bihurtzen zaizkizun, eta oraingo pauso hau gure Herriarentzat beste eskubide galduen aitzindari izaten den. Bitartean, orain arte bezala, segi lanean, euskaldunon nazional hizkuntza batuaren onerako izanen da eta. Jakizu, gainera borondate onteko euskaldun guztiok zeurekin gaituzula. Zure hitzen zain gaude.

Ba dira, ordea, dela argitasun faltaz edo dela konpreni ezinezko setakeriaz, Euskal Akademiaren teknika esanetara egon nahi ez dutenak ere. Berauek, antza, jakituri gaintasunez, ez dute euskal arloan inolako gidaririk behar ibiltzeko. Bejondiola! Ale honetako dossierrean, irakurleak holako batzuren berri eta jokabideak ikusiko dituzke.

Bestalde, F. Gonzálezen etorrera zaratatsua dela eta, Donostian jaiotako baten ahotik —Pernandoren egiak jatorragoak ziren— “*la mayoría de los vascos no hablan más que castellano*” delakoa entzuteko parada ukan dugu. Bistan da, bai, hura eta gu ez garela hizkuntza berberaz mintzo. Bera, *vasco* horietakoa da; guk, aldiz, helburua euskaldun izaten dakusagu.

Beste albiste on bat ere bai. Bernardo Arrizabalaga, behialako *Los Barroeta* elaberriaren egilea eta Hermano Lobo humore aldizkariaren zuzendaria, euskal letretara datorkigu oraingoan ere. Lehen bezala, ANAITASUNA berritoki idazten hasi da. Ongi etorri Bernardo!

GORA
Euskaltzaindia
gora





BILBOKO HANDIKIEN "HANDITASUNA"

Berri hau ez da erebat berria. Baina ez da gure artean zabaldua. Hala ere ba du interesik. Baina nonbait ezkutatzeko interesik ere ba zuen. Eta gordetzeko interesa zutenek irabazi dute, hauk baitira indartsuak, politikazki indartsuak, ekonomiazki boteretsuak. Hemengo prentsak ez digu gertatuaren berri xeherik eman. Albistea; xehetasun eta guzti, Madrileko prentsatik jakin genuen.

Errekaldeberriko ez baina Neguri aberatseko zenbaitzu, drogekin harra-patu zituen poliziak. Kasualitatez bezala "hijos de papá" dira guztiak; Bilboko aristokraziaren seme-alabak. Burutik hasten omen da arraina usteltzen.

Erori diren edo ihes eginda dabiltzaten artean, deitura ezagun eta "agurgarririk" ez da falta, hala nola, Guzman familiako bi, Careagatik bat, Zabala familiako bat, Delclaux familiako bat, Arístegui Diputazioko Lehendakariaren semea Pedro, Alfonso Libano ere bai, arkikekto famatu baten semea, Patricia Zubiaga Azaola eta Blanca Oraa andereñoak, eta gainera ihes egin zuten Cala Ampuero, Magdalena Bilbao, Juan Luis Libano eta Etxeberria familia-ko bat.

Araza bat baino gehiago harrotzen du hemen gertatuak. Zergatik ez zaio berri honi publizitaterik eman? Bestalde, justiziak neurri bera izan ote duen galdetzen duenik ere ba dago, gerokoa ezagutu eta. Eta batez ere esanguratsua da, alde batetik, guztiok batera ibiltzea, eta, bestetik, herriko problematik hain urruti, droga hartu beste deus egingarriagorik aldamenen ez balego bezala. Zalantzarik gabe, ba dago, bai, zerbait usteldurik Neguriko Erresuman.

JESUITAK ETA EUSKAL UNIBERTSITATEA

Zeruko Argiak (674 zenbakian) "Agur, euskal Unibertsitariok" idazlantxoan zera agertzen zuen, halebria, Ferrer Pi jesuita jaunak, Deustuko erretore izana eta orain Madrilen Espainiako jesuita guztien buru denak, Deustuko Unibertsitatean Madrileko jesuiten azpian jarri nahi duela.

Horran aurka joan behar zela eta, bide zenbait proposatzen zen idazlan hartan, Deustuko Unibertsitatearen autonomia babestearen alde. Azken orduan jakin izan dugunez, euskal talde batek, Mondragoetik hasita, gutun ireki baten azpian jartzeko izenak bilatzera jo du, zenbait jesuita bururi zuzentzeko asmotan. Martxan dago kanpainak.

EL CORREO ESPAÑOL

ANAITASUNAren 310. zenbakian esaten zen, goian aipaturiko Bilboko erdal egunkariak ez zuela onhartzen euskaraz idatziriko argitaratzea erdarazko itzulpenarekin ez bazen.

Dirudienez, hainbat karta hartu dituzte jendearen protestekin. Guk ere bidali genion geurea otsailaren 16an, eta 18an Antonio Barrena zuzendariak erantzun digu esanez euskarazkoa soilik argitaratzeag eskatuko dutenei horrela argitaratuko dietela.

Beraz, jendearen protestak zerbaite-tarako balio izan du.

VIVA CRISTO REY

Hemen aipatuko dugun hau ez da ipuin bat, gertaturikoa baizik.

Bilbon, urtarrilaren 26a, gaueko 7, 30, Jesuiten Residentziaren alboko atean, El Corte Ingles-era ematen duenean. Itxura arraroko gazte batek handik pasatzen diren guztiei oihukatzen die "Viva Cristo Rey!". Inor ez da ausartzen ezer erantzuten, behar bada inguruan zuen taldearen bildurrez.

SEPARATISMOA BAI ALA EZ?

Urtarrilaren 30ean Fraga Iribarne jaunak afari bat eskaini zien "a los procuradores vascos". Bizkaia, Araba eta Gipuzkoakoak izan ziren deituak, baina ez Nafarroakoak.

GASTEIZ AMNISTIAREN ALDE

6.000 pertsona.

Iragan Urtarrilaren 13.an Gasteiz hiriak bere biziko manifestaziorik ugari eta indartsuena burutu izan du. Hase-ran, berriki sortua den ARABAKO BATZARREA izeneko indar abertzaleek deitu zuen jendea. Baina gerora politik eta sindikal alderdi guztiak zabaldu zuten beren deia, bereziki Euskadiko Demokrazia Biltzarreko indar politikoek.

Ordu erdi luze batez, hiriko kalerik nagusienetan zehar, jendetza hark bizi-ki oihukatu zuen Amnistiaren aldeko deihadarra. Manifestazioaren burua politik presoen senideek osatzen zuten batik-bat.

Oso eztabaidatua izan da manifesta-zio hau bertoko politik indamen artean.

Alderdi bakoitzak ura bere errotaratan nahi nonbait... Gorka Krieger (DESTINO, 4-11-76) dionez, jendea Arabako Batzarrearen deia erantzun bide zion. Baina gehiengoak "sukurrulisten" (Gorkak honela bataiatzen du deia) segitu ziola uste dute. Batez ere askok, hots, PT. PC. PC. Euzkadik, MADRID, ORT, etabarren deia. (Ikus TRIUNFO, 7-11-76).

Egia da, abertzale kutsua zorian nagusi agertu zela jendetza haren atzetan. Baina bestalde, jendeak ez du errepikatu zituen grebalarien aldeko oihuak. Mihi gaiztoek diotenez, grebalarien aldeko oihu hauk entzutean, hango zenbait entpresagizon abertzale alde egin omen zuen plazatik.

Gipuzkoako PNVA euskara batuaren alde

Gipuzkoako Buru Batzarrak euskaratu batua onhartu berri du azken bilan batetan. Are gehiago, anti-historikoa akademiaz gisa eta Goiz Argi-aren alde joerak erotik kondenatu ditu. Sarean ere ba zen, baina tira, berandu bat ere, bihoazkie gure zorianak; bilatu emanak gainera.

Noiz egingo digu beste horrenbeste "Bizkai Buru Batzarrak"? Mitxelena-kin oppordali luzetxo batzutan egarri otsandiarrek izango du, seguru horretan zer esanik.

ESPAINIAKO ERREGEA KATALANEZ


Juan Carlos, Espainiako erregea Katalunian zehar egin berri duen bidan, gaztelaniaz eta katalanez mintzatu izan zaie entzutera bildu zaizkien.

Katalan publikoaren artean oso ongi harturiko portaera honek, nahiz eta dirudi erregea Galizian eta Euzkaldun Herrian ere heriotzako hizkuntza zerbait esatera behartuko duela.

DIMAKO APEZA KANPORA BIDALIA

Hamar urtetan Dimako apeztegiaren Joseba Zabala parrokiatik kanpora bidalia izan da. Erabaki hau oso ezbaidatua izan da Amnistiaren eta bilaketa zabalduetako paperekin Aita Mari pasiotarraren inguruan dagoen zehar talde bat salatzen dute kanpora itzte horri ermutuztat.

Joseba Zabala oso esomatuak diren batez ere gazteen artean.



ANJEL ZELAIETAREN HITZALDIA DEUSTUAN

Zubibarri, Deustuko Euskal Kultur Taldeak, Gabriel Aresti eta bere lanari eskainitako aste bat antolatu du otsailaren 16tik 21 era. Arrakasta handia lortu du, bai jendearen erantzunean eta bai hitzaldi, mahai biribil eta jaialdiaren kategorian.

Bereziki interesgarria Angel Zelaietaren hitzaldia izan zen, euskaraz. Bi ordu luzetan, Arestiren bitzta azaldu zigun, jaiotzetik heriotzeraino. Lan sakona, oso dokumentatua. Horretarako, Zelaietak karta asko idatzi ditu Arestirekin harremanak euki dituzten pertsoneri, edozein ideologiatakoak direla, eta material oso balios bat lortu du. Entzun dugunez, material horrekin liburu bat prestatzen ari da.

Lastar: ALFONSO IRIGOIENEN MEMORIAK

Entzun dugunez, Alfonso Irigoienek bere Memoriak idatzi ditu (lehen tomoa uste dugu, zeren oraindik Alfonsok, zorionez, urte asko ditu aurretik euskara eta Euskal Herriaren onerako). Esan digutenez, oso interesgarriak dira eta argitaratze bat gertu omen dago inprimategira eramateko.

Alfonso Irigoienek lan bikain bat egin zuen gerraondoko urteetan, euskal kultura zeharo bazterturik zegoen urte ilun haietan. Aurretik zetozen oztopoak gaindituz, zeharka zetozen mesfidantza mingarriek gorabehera, Alfonso Euskaltzaindia jasotzen aritu zuen, bertolarien saioak (urte haietan zeuden euskal jai bakarrak) antolatzen, etab. Lehengo eta oraingo belaunaldien arteko zubia, ahula bada ere, Irigoieni zor diogu hein handi batetan.

EUSKARA IKASTEKO METODO BERRIA

Euskara batua ikasi nahi dutenek metodo bi dituzte orain, bata "Euskalduntzen" eta bestea "Euskara hire laguna", baina nola biak euskara hutsen idatzita dauden, derrigorrezkoa da irakaslea haietat baliatzeke.

Gogoan harturik irakasle batengana joan ezin duen jendea, eta batez ere ikastoletako ikasleen gurasoak, CINSA etxeak inprimategian du gaztelaniaz idatzitako bat, euskara batua etxean ikasi nahi dutenentzat. Ikasgaiak Xabier Gereño-k prestatu ditu eta azken begirada Xabier Kintanak eta Joseba Tobareek egin diote.



BESTE TALDE BAT EUSKARARA

Algortako "Los Guaitos" kanta taldea euskarara pasatu da. Hemendik aurrera bere izena "Guaitoak" izango da eta erreperorioa euskarazkoa. Laster disko bat argitaratuko dute bere abesti ezagunenekin.

BESTE DISKO BERRI BI EUSKARAZ

"Naikari" kanta taldeko zuzendari izan zen Faustino Arrieta berriz ere lanean hasi da, eta Xabier Zamudio solista delarik disko bi prestatuko ditu. Horretarako laguntza balios bi ditu: musikaren aldetik Rafael Ferro eta hitzetan Bittor Egurrola. Lehen diskoan Ondarroan saritutako abesti bi joango dira.

EUSKAL ZINEMA ASTEA

Bilbon, eta UNIBERTSITAL ZINE KLUBa (Villarias, 2, 1.º - BILBAO, telefonoa 424 19 39) antolatzaile dela, Euskal Zinema astea eratua izan da. Denetara hamar filma aurkeztu dira Santiago Apostol Teatroan, otsailaren 24tik 27ra.

EUSKAL HERRIKO (IPAR-ETA HEGOALDEKO) MENDIGOIZALEEI DEIA

Adiskide maiteok: Herri honetan (Bizkaiko Karrantzan) mendigoizale talde bat ("Valmaseda S. D." delakoaren ordezkari) eratzen ari gara. Hasteko edo inauguratzeko, oso ibilera polita asmatu dugu: Balmasedatik Karrantzako Lakontxara, eta handik Koltza eta Burgueno mendi gailurretara igaitea.

Oraino segur ez dakigu noiz izango den, baina beharbada apirilean edo maiatzean izango delakoan gaude. Balmasedan lo egin eta goizeko 7 edo 8etan hastea: horixe da gure asmoa. Lakontxara heldu ondoren, askari txiki bat eta euskal dantzak eta kantak eskainiko dizkizuegu. Dena ongi presatatzeko, zenbat etorriko zareten jakin gura genuke. Esan, mesedez, helbide honetara idatziz: Jose Mari Alix Trueba. La Concha, 71. Carranza.

BIZKAIKO 2.700 IRAKASLE GREBAN

Bizkaian, Estatuko kolegio nazionaletan, 2.900 irakasle inguru daude, eta Bilboko egunkarietan irakurri dugunez, hauetatik 2.700, hau da, ia denek, hainbat egunetan beren lana utzi egin dute.

Haurren bitartez, gurasoei paper batzu bidali dizkiete lana zergatik uzten duten azalduz, eta egunkariak jaso eta argitaratu dituzte grebalarien eskabideak. Sei dira eskabide hauak: Irakasleen Sindikatu bat sortzea, borondatezko jubilazioa 60 urtetan, soldaten gaurkotzea, etab. Boskarren puntuan, eskola nazionalak 2.700 irakasleok eskatzen dute eskola nazional guztietan euskara sar dadila gurasoen eskabideen arauera eta dohainik, hau da, irakasleei ezer kobratu gabe.

ELAIS ALAI

YURRE

DANTZATOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA&LUR** RESTAURANTA

EUSKAL HERRIAN



DEUSTUKO HIZKUNTZ ESKOLA

OFIZIALA ETA EUSKARA



Gure hizkuntzak giro hobe bat ezagutzen duela dirudi aspaldion. Lehen erabat hertsirik zituen hainbat ate, goizetik gauera, pittinka bederen, zabaltzen hasi zaizkio. Bizkaian, Gipuzkoaren antzera, **Comisión de bilingüismo** delako bat sortu da euskararen alde, eta Deustuko Hizkuntz Eskola ofizialean, aldiz, ingelesa, frantsesa edo beste edozein mintzaira arrotzen parean ezarri berri da irakaskuntzan, azken legearen arauera "nazionala" bihurtu zaigun geure hizkuntza.

Hala ere, zenbait albistekin intzurrekin bezala gertatzen da maiz: erortzean hamabost hots atera arren, bertara joan eta bost besterik ez dira izaten. Hemen ere, izen haundiko laguntza ofizial horren ondoan, ba dirudi izan eskaseko errealitate triste bat dagoela, hurrengo lerroetan irakurleari azaltzen saiatuko garena.

Ikasleek sinadurak biltzen

Deustuko Hizkuntz Eskola ofizialean euskara sartzeko gogoia ez da, izan ere, oraingoa. Duela zenbait urte, ikasle batzuk sasoi hartako zuzendariari beren nahia agertu zioten, baina hark, erantzun ez bazien ere, irakasleen artean lehena go "erruso komunista" sartuko zukeela esan zuen (omen gabe). Geroago, ordea, gauzak hobetu egin dira eta beste estudio-arduradun gazte bat etorri da, Ovelar jauna. Beronek, aldiz, euskaraganako estima bat erakutsi ukan du beti eta, beharbada horrexegatik, 1975.eko Agorrilean 177 ikasleek beren sinadurak Euskaltzaindiko etxera eraman zituzten, erakunde honek, nor gisa, Hizkuntz Eskolara presenta zitzan, ea horien bidez hurrengo ikasturtetik aurrera euskara irakasten zen. Geroago Euskaltzaindikoek sinadura aipatuok zuzendariari eraman zizkion, ikasle haien gogoia adieraziz.

Euskaltzaindira laguntza bila

Eskolako zuzendaritzak euskarazko eskolak emateko, Xabier Uriarterengan pentsatu zuen. Philosophi-Letretan lizentziatua berau, frantses hizkuntzaren espezialista eta Deustuko eskolako irakaslea. Gazte honek, Fikakoa izanik, ba daki euskaraz mintzatzeko, bere herrian ikasia.

Zuzendaritzagandik euskaraz arduratzeko kargua hartzean, Uriartek zenbait harreman izan zituen alfabetatze eta euskal irakaskuntz munduan ari diren gazte batzuekin, eta haiek, aho batez, Deustuan egin nahi zutenerako, Euskal Akademiarekin kontaktzea ezinbestekoa zela esan zioten, berau baita, izan ere, Euskal Herri osoaren mailan euskaraz arduratzen den erakunde bakarra. Berak dauka, gainera, herri mailako ofizialtasuna, orain arteko meritua ugari eta ongi frogatuengatik Herriak berak onhartua, eta Akademiarekin frogatu gabe beste edozein erakunde edo talde euskal titulu "ofizialak" ematen hastea intrusismo lotsagarri bat besterik ez litzateke.

Gauzak horrela, Uriarte jaunak Abenduaren 9an Euskaltzaindian gutun bat igorri zion, zituen asmoetarako laguntza tekniko eskatuz. Abenduaren 16an, Euskaltzaindian erantzuna eman egin zion: hartan, irakaskuntz arazoa zela zela, Alfonso Irigoyen eta Juanjo Zearretarekin harremanetan, zuzendariaren zuzendariaren gomendatzen zitzaie, berak baitira, beste batzuekin artean, Euskaltzaindian arlo horren ardura daramatenak. Harremanak, izan ere, hasi egin ziren horrela.

Gabonetako jaien ondoan, Urtarrilaren 13an, Hizkuntz Eskolan bilera bat egin zen, ikasturtearen programa eratzeko. Hartan, premiazkoena irakasleak lortzea zela ikusi zen, hori betetzea, beharbada, hain berandu ibiltzeagatik zaila gerta zitekeelako. Guztien artean irakasleak topatu zirela hurrengo bilera batetan berriz elkartzeko geratu ziren.

Bilinguismoarako batzordea sortzen da Bizkaian

Aurtengo Urtarrilaren 15ean, Bilbon, elebitasunaren arloko kapenerako batzorde bat eratzen da. Horren burua Bizkaiko gobernadore zibila da, Ugarte jauna, eta buruordea Heledu zuzendaria da, eta Zientziako delegatu probintziala, Elhazah jauna. Hauetz gainera, Magisterio eskolako zuzendaria den Ferrer Delmás jauna, lehen mailako inspektore nagusia, Ferrer Pérez Alejo eta Bizkaiko Diputazioaren ordezkari bat da, Gobernadoreak, gainera, lege duen botereaz baliatuz, zuzendari aukerako hirur pertsona izendatu ditu laguntzaile: Angel Beldarrain andrea (maistra nazionala), Juan Ramón Urtiaga (Euskerazaleetako eta RSVAP.eko zuzendaria) eta Alfonso Irigoyen euskaltzaina.

Honetan, guk uste, zenbait puntu argitu beharra dago. Lehengo eta behin, hautatuaren egokitasun edo eta desegokitasunean sartu gabe —ez baita, hau kasua—, kontuan hartu behar da izendapenak gobernadoreak berak egin zituelako, ez, esaterako, Bizkaiko maisuen inongo taldek, Euskerazaleek edo eta Euskaltzaindiak, jaun-andreok erakunde probintzialak edo izan arren. Alde horretatik, batzorde horretan zuzendari guztien interes berezi bat ukan eta horren alde jarduten talde horik ez zeuden gisa legez errepresentatutako irregularitate nabaria berau.

Bigarrenez, auskeratuen artean, Alfonso Irigoyen zuzendariak zekien bakarra. Ez dirudi, gure ustez behintzat, zuzendari egokia den bilinguismoaren aplikapenerako batzordea interesatuen hizkuntza ez dakiten pertsonen osatua izan behar.

Hirugarren. Azken pertsonengan eta goragoko beste batzuetan ere, gauza bat dago nabari: konpetentzia teknikoaren sozialik eza. Guztiengan, **conditio sine que non** izan behar du lukeena, euskara jakitea, falta delako, eta akats larriak gainera, beste zenbaitzuk orain arte euskara eta euskaltzaindiko aldeko erakundeekiko (jistikolekiko, kasu) erabili duten erakundeak taera desegokiagatik. Zeren ba dirudi euskararen defentsarako pertsonen euskararen alde jokatuko duketelako garrantzi horniturik egon beharko luketela, eta segurantzaz horniturik dakusagu inondikan ere gaur arte gure hizkuntzari zuzendari ipintzen saiatu direnengan.

Zer besterik behar da, holako batzorde bat bere funtzio horretatik erabat deskalifikatzeko, hizkuntz teknika eta erakunde matiba alorrean?

Comisión de Bilingüismo delakoaren erabakiak

Urtarrilaren 15ean egindako bileran, irakasleen presentzia den bezainbatean, batzorde horrek, ordurarte eman diren irakasleak luak begi onez ikustea erabakitzen du, Euskaltzaindian emandakoak eta Euskerazaleak moduko elkarte partzialak.



batek zabalduak balio berdinekotzat harturik. Hala ere, titulu horik ofizialki onhartuko liratekeelako kasuan ere, ordurik aurrera, Ministerioak emanen dituzkeenak ziratekeen ofizialki onhartuko liratekeen bakarrak. Batzorde horrek, beraz, Ministerioari uzten dio euskara irakasteko gai nor den erabakitzeko ahalmena.

Titulu ofizial horietarako, gainera, Deustuko Hizkuntza Eskolan 1. eta 4. mailako ikastaroak lehenbailehen prestatzea pentsatu zuten. Ikasleen artean, Magisterio tituludunak eta lizentziatuak hobetsiak izanen ziren, hasieran, geroago beste batzuri ere toki eginez.

Euskarazko irakasleak biltzen dira

Urtarrilaren 20an, aurreko bileran erabaki bezala, irakaskuntza emateko interesatuak Hizkuntza Eskolan biltzen dira. Dirudenez, Xabier Uriartek, tartean, Euskerazaleak taldearekin harremanak izan zituen, Montiano eta Ander Manterola jaunekin bereziki, eta berauek zenbait pertsona eskaini zituzkion. Deustuan agertu zirenak, dena den, hauk izan ziren: A. Irigoyen euskaltzaina, Mikel Zarate eta Juanjo Zearreta euskaltzain laguntzaileak, Rikardo Badiola eta Sabin Egileor Euskaltzaindiko irakasle tituludunak, Jose Lasa eta Paul Muñoyerro, azken hau Philosophi-Letretan lizentziatua.

Lehenbiziko bilerako guztiok, ez dakigu nolako erizpidez baina, beste gabe ontzat eman eta aukeratuak izan ziren. Hurrengo bilera batzutan programak egiten saiatu ziren. Hasieratik kontrastasan haundi bat sortu zen: Irigoyen, Zearreta, Badiola eta Egileor euskara batuaren eta Akademiaren alde agertu ziren artean, Mikel Zarate eta X. Uriarte kontra azaldu ziren; Lasa jauna h gabeko batasunaren alde eta Muñoyerro ez zen ezertan sartu.

Azkenean, 4. mailako titulua hartzeko, ikasle guztiek euskara batua ezagutu beharko zutelako erabaki zen, gutienez Euskaltzaindiaren examinetan eskatzen den neurri berean.

Istiluak, ordea, lehen mailari dagokionean sortu ziren. Zaratek eta Uriartek, ikastaroak Bizkaian egiten zirelako, bizkaieraz emateko eskatzen zuten. Mikel Zaratek, gainera, oraintsu atera berri duen deklinabide berezia proposatzen zuten eredutzat. Bizkaieraren aldeko joera amorratu eta zentzugabeko hau kalera ere irten da, Herri Irratitik Adolfo Aregita jaunak Euskaltzaindia eta beronen tituludunengatik bereak eta bost esanik, bizkaiera eman nahi ez dutelako.

Ikasleak matrikulatzera datoz

Ofizial hitzak, beste gabe, ba dirudi jendea liluratu egiten duela. Izan ere, mila eta berrehun ikasle inguru joan ziren Deustura matrikula egitera, haietako ez gutti Euskaltzaindiko tituludunak. Ikastaroa beste nonbait hasitakoak ere ez ziren falta.

El Correo Español-ek, bestalde, titulitis horren bultzapena egiten zuen, euskal tituluak emateko eskubide bakarra Ministerioarena zela behin eta berrito errepikatuz, eta **contradictio in terminis** eder bat eginez, Ybarratarren egunkariak hauxe zioen: "oraingoz eskolak emanen dituzten irakasleak ez dira ofizialak izango, horretarako "egokituak" baizik, baina haien irakaspenen bidez examina ongi pasa eta titulua lortuko dutenak, aldiz, bai". Horrekin, argi eta garbi, titulu baliotunik ez zutenek beste batzuri baliozko titulu ofizialak emateko gaitasuna onesten zen. Eta inork ez duen gauzarik besteri ezin eman diolako egia baldin bada, ez dago inondik ere klar arazo hori, guk uste.

Ikasleen arteko mailak banatzeko, examina bat egitea erabaki zen. Erresultatuak, jakin dugunez, ezin nigargarriagoak izan dira. Laugarren mailarako presentatu ziren askok, examina hartan idatzi bide zituzten beren lehenbiziko euskal hitzak... eta 3 hilabetetan goi mailako titulua eskuratu nahi!!

Iraskasle batzurekin lehenagotik euskara ikasten saiatuiko zenbait ikasle, berauen maila ongi ezaguna baitzuten, examina gabe onhartuak izan ziren. Taberna batetan jakin ahal izan dugunez Aita Fermín Pasiotarrak, ordea, bere alde-tik, izen zerrenda bi eraman zituen bertara (S. Felicisimoko ikastolako maisu-andereñoena eta Eubako irakasleena), zergatik ez dakigularik, onhartu zituzkionak.

Uriarteren erabakia

Otsailaren 14ean, Xabier Uriartek, Eskolako euskal "dekanoa"k, paper bat pasatzen die irakasleei, lehen ikastaroan bizkaiera irakasteko aginduz. Gauza ez dago guztiz garbi; erabaki finko horretarako, ba dirudi Uriartek Ander Manterola apez jaunaren kontseiluak kontutan hartu dituela. Izan ere, hainbat hari misterioitsu erabiltzen dakien jaun honek, harreman hestuek izan ditu "dekano"arekin. Ba da Hezkuntza eta Zientziako delegatuak hori agindu diola dioenik ere. Ez du ematen, zeren, Elhazah jaunak, arabe oso ongi jakin arren, euskaraz tutik ez baitaki.

Uriartek, bere hitzez "euskara batuzko aldizkaririk ezin dut ulertu" norbait aitortu dionak, agian aski dakusa bere burua horrelako arazo serioetan hain pauso finkoak emateko. Bai eta, inori horretarako baimenik eskatu gabe, berea ez duen **Euskalduntzen** liburua, berak nahi dituen aldakuntzak sartuz... bizkaierazko metodotzat hartzeko ere!!

Arazoa orain

Saltsa beraz, horrela dago. Alde batetik euskara kontuan Euskaltzaindiaren maisutasuna onhartzan duten irakasleak, eta besterik beren burua, edo beren nahikeriak, inoiz Eliza Ama Santisimaren interesen atxakiaz estaliak, maiteago dituztenak. Ikasleei, berriz, ez zaie eritzirik eskatu, eginez gero gehiengoak nora joko lukeen ongiegi dakitelako.

Euskararen alde aurrerapauso on bat gerta zitekeen ekin-tza bat, "dekano"aren gestio desegokiengatik eta beharbada tartean dabiltzan aitortezinezko beste interes batzurengatik, hor geratu da, ez buru ez hanka, erdipurdika eta desprestijaturik.


Horrelako pasteladen aurrean, euskaldunok **geure** erakunde jatorren tituluarekin aski dugula pentsatu behar genuke, eta Gipuzkoako Ikastolen Federakuntzak hain zuhurki egin duen bezala, titulu ofizial bakartzat Euskaltzaindiarena onhartu. Azken orduko beste horiek beren borondate onaz gainera, gure erakundeekin kolaboratzeko itxura haundiago bat erakutsi arte behintzat.

Eneko Gazteluberri

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Aldizkaria.—2: Si. Haur. B.—3: Lumak. Okin.—4: Azidoa. Al.—5: T. Hi. L. Dio.—6: Ari. Ea. R. A.—7: Senitarte.—8: Ukatu. Arau.—9: On. Epelena.—10: Apeza. Bete.

Goitik behera. 1: Askatasuna.—2: Zail. Poker.—3: D. Mihina. E.—4: Irudi. Zati.—5: Zulo. Atuna.—6: Kaka. Alea. E.—7: Aho. Elur.—8: R. Teatroak.—9: Ibili. Erpe.—10: A. N. Da. Bea.

24 ORDU EUSKARAZ



Kultur astea Iruinean

Lehenengo ANAITASUNAN aipatu genuen euskal kultur astearen ostean —**Campión** euskal akademiak antolatua, hategia— beste bat eduki dugu homabost egun geroago. Izan ere, salesianoen ikasle ohien elkarteak moldatu gogo dituen beste aktibitate batzuren atari gisa, kultur aste bat burutua izan da, urtarrilaren 26tik 31ra, euskal gaiak nagusi gertatu direlarik. Eskergarria eta bide batez bultzagarria, gazte kementsu horiek eskaini diguten ekintza, Iruineko herri guztia zuzendua, hortarakotz erdara harturik medio bezala, ezen aski ongitto baitakigu erabat deseuskaraturik dagoela Iruineko herria. Beraz, holako aktibitateetan erdara nahitaez erabili beharrekoa zaigu anitzetan, bederen delako kultur gaiak zabalkunde maila batetan sartzen ditugunean.

Astelaren 26an, Belagoa eta beronen arazoari buruzko elkar hizketa bat prestatu zen. Entrepesa batek toki hortan eraiki nahi duen eski estazioa arras kaltegarrikoa izanen litzatekeela azaldu zuten hizlariak, hortarako zenbait frogak erakutsiz. Askiz jakina denez, Erronkari eskualdeko Belagoa aldean eski antolamendu gaitz bat muntatu nahian dabil, helburu horrekin sortu zen entrepesa bat; eta beronen interesetan eta ez bertako semeen onetan erabakita dago estazio guztia. Bestalde, herriaren eta

Donostia eta Loiolako Herri Irratiek euskal kulturarentzat seinalagarri eta eragingarri gerta daitekeen 24 ORDUAK EUSKARAZ eguna antolatzen ari dira Martxoaren 27-rako. Egun honi garrantzi berezi bat aitortzean, ez dugu, gure ustez, hitz alferrez hitzegtiten. Arrazoin hauek, behintzat, ba ditugu hala izango dela sinesteko:

1. - Kondairan lehenengo aldiz irrati bi euskara hutsean arituko dira 24 orduen luzeera osoan.
2. - Egun osoan "euskal kultura" izanen da hizketagai bakarra. Planteamendu hau emango diogu gai bakar, baina aberats honi.
 - a) ordu erdiko 13 mahain inguru, bakoitza euskal kulturaren sail batetaz.
 - b) bi ordu ta erdiko mahain ingurua IRAKASKINTZA, HAURZAINDEGITIK UNIBERTSITATERAINO gaiaz.
 - d) 24 bailaretako euskal kulturen egoeraz beste hainbeste kronika.
 - e) euskal kulturaren lan berezi bat egin duten 25 gizon-andrea elkarriketak.
3. - Egun horretan Euskaltzaindia Gipuzkoako Diputazioan bildu da bere hileroko bileran eta bilera hori, horretarako artean egokiratua, zuzenean emango dugu irratitik. Eguerdik aurrera izango da hau, 13,00 orduetatik 14,30 orduetara. Horrela Euzko Euskaltzaindiaren bilera honen jiran jartzen dugula adieraz nahi dugu, berari aitortzen diogunez euskal hizkuntzaren alorrean duen zuzendaritza nagusia.
4. - Gure asmoen barrenean sartzen da, orobat, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Diputazioak Euskaltzaindiara Bilera hontara gonbidatzea, hala, beraiek sortu zuten Erakunde honi berriro bere babes ofiziala aitortzeko.
5. - Egunari amaiera din bat eman nahiaz JAIALDI handi eta goimailako bat eratuko da, Euskal Herriko jende guztia gonbidatzen dugularik, bertara bil dadin

nafor mendizale talde guztien arropatu gogor bat delako medio, dirudienez, arazo trakets hau proiektu hutsean geldituko da eta hor bukatuko ere.

Astearte 27an, Pedro Sota zinegileak egin eta zuzendutako "Nortasun" deitu filmaren jendaurreko lehen aurkezpena egin zen. Delako filmea Mendiburu gipuzkoar eskultore famatuaren obrez burutua da, Mikel Laboa kantariak eta bertsolari batzuk beren mezuak egotzen diharduten bitartean. Segidan elkar solasaldi bat suertatu zen, Oteiza eskultorea sutsuki ateraldi gogorak botatzen ari zela. Holakoan artean bat batez ere aipatzea komeni da, eta hau da: gaur egun eskultoreak herri zapalduen ezaugarriak direla: zenbat eta eskultore gehiago, herri hori zenbat zapalduago. Eta, Oteiza berak adierazi zuenez, Euskal Herriko dugu munduko nazioen artean eskultore gehien duen herria.

28 eta 29an, Bilabako "Santa Cecilia" koruak eta "Madis" teatro taldeak saio bana eman zuten, jendea puztu ki bilduz. Eta, astea amaitzeko, larunbat gaueko hamar orduetan, Lurdes Iriondo, Xabier Lete eta Antton Valero dekan emandako kantaldia, jendeak eskuak apurto artean zartekin kanta guztiak txaloturik.

Herriarekin. Herriarentzat.



Caja Laboral.



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AVREZKIA**

hezuntza

Ikastola ttipiak nork lagunduko? Kasu bat, Berastegi

Ba dira bost urte, Berastegiko ikastola sortu zela. Baina ez dirudi, gero eta hobeto ibiltzeko kemen haundirik duenik. Arrazoiak ugariak dira; baina, beharbada, errurik haundiena, bere burua urkamendira kondnaturik dukeen gizartearena da.

Tolosatik hamar eta Leitzatik zortzi bat kilometrotara, giputz-nafar menditarteko habia antzeko herrixka duzu Berastegi. Orain hogeitaz erabat nekazaria zen, eta azken urteotan nekazari-proletari bilakatu zaigu. Ez du herri industriatsuen ohizko problemarik, ez eta zeharo nekazari direnetakoenik ere. Ez da pobre, oso aberats ez bada ere. Eta ba da hezur eta mami (100 %) euskaldun (euskaradun).

Euskaldun esan duta? Bai eta ez. Berastegiko hainbat gurasok ez du nahi (gaur behintzat) beren haurrak euskarari eta euskal izaeran haziak eta heziak izan daitezten, edo hala ematen du behinik behin. Ba dirudi, herri honek ez duela euskaldun bizitzeko asmorik edo gogorik. Asperturik dagoke, agian, hainbeste eta hainbeste urtetan euskaldun irauteaz; eta orain, diru berriarekin batera, bizitza edo jantzi edo izaera berri bat nahi duke. Dirudienek, aski duke orain, euskaraz lo egiteaz edo euskaraz zurrunka aritzeaz. Gehienek ere, hemen espero litekeena, norbaitek euskaraz amets egitea izanen litzateke. Ez duke beste jorarik jende honek. Eta, behin esnatuz gero, beren haurrak espainolez heziak izan daitezten eskatuko du; eta espainolaz zenbat eta gehiago kutsatuak eta joak egon, hainbat eta harroago, hainbat eta urguilutsuago dakuskigu hemengo gurasoak.

Egoera hau buka erazteko, itenbide bat, eta arras ximplea norbaitentzat, zera litzatekeela esango genuke: jende hori, guraso horik kontzientziatzea, horien baitan kezkarik sortzea. Eta kito, egina legoke dena. Baina hortantxe dakusagu arazoaren gakoa: nola, zeren bidez sorterez kezka horik? Hitzaldien, jaialdien bidez? Antolatua izan dira bai batak eta bai besteak; baina horiek guztiok beste jenderengan fruitu arras pozgarririk eman badute ere, hemen... hemen ez.

Jende hau ez dute gauza horiek ukitzen. Etxez etxe eta atez ate dei egin zaio jende honi, hitzaldi batetara edo biltzarre batetara edo harako jaialdi hartara joateko; baina ez du ilusio haundiegiz erantzun izan. Itxura denez, ez zaio axola horrelako arazorik.

Baina, hori bai, basurdetara dei egingo bazenu, lasterka etorriko litzazkizuke gizona gehienak behintzat. (Ez duzua oraindik entzun hemengo basurde ehiza burrukaren historia? Entzutekoa, gizona, entzutekoa; baina nik ez dut esango hemen historia hori, hemengo jendearentzat beharbada gauzarik garrantzitsuena basurdeak erhatea eta afari onez ospatzea bada ere.)

Bien bitartean odolustuz doakigu ikastola. Duela bost urte, hogeitaz hamar bat haurtxoren aterpe zen Berastegiko ikastola. Gaur, beste herrietan haurrak gero eta gehiagotuz joan diren bitartean, hemen erdira beheratu zaizkigu: hama-zortzi besterik ez dira! Ba dirudi, ikastola bera ere hiltzer dagoela, zeren bost urtetxoren buruan gertatutako beharpen horrek nahiko argi frogatzen baitu hemengo ikastolak ez

duela etorkizunik ez lekurik gizarte hontan. "Zertarako, bera hiltzera doakeen egoera bati laguntza ematen saia? Utz die zaiogun bake sainduan eta bere gisara itzaltzen".

Hala ere, betitsu bezala, ba da hemen ere, gerla pikza bati eman gabe horren erraz gauzak onartzen ez dituen jenderik. Eta ongi baino hobeki oharturik, hemen berton ez duela oraingoz behintzat, halako erantzun haundirik izanen, kanpora jotzen du, edo ANAITASUNAREN bidez edo eta helburu hortarako egoki iruditzen zaizkion beste lanabes batzuren bitartez.

Jende apur horrek erabakia duenez, ikastolaren diru arazo zuzentzea izanen litzateke lehen urratsa. Eta hortarako jaialdi bat eratua du, datorren martxoaren hamahirurako Lazkao Txiki eta Joxe Agirre bertsolariek ihardungo dute, eta Rekondo, Jokin Lasa eta Urko kantariekin tartekatuz. Ondoren, nahi lukeenak, hankak berotzeko aukera osoa izango du asebeteko orduak arte, Marianoren soinuari jarraitzeko gauza bada.

Dei egiten zaio, bada, lerro hauetatik borondate oneko euskaldun orori, hiltzer dagokeen ikastola ttipi hau lagunduko datorren martxoko bigarren larunbat arratsa ongi pasatzeko aukera hori gal ez dezan. Edonork daki (jakin behar luke behintzat) herri ttipietan oso aukera eskasak izaten direla dirurik biltzeko. Esan dugun bezala, kanpora luzatu beharrean aurkitzen ditugu, bada, geure begi-eskuok, zuk euskaldun adiskideorrek, lagun gaitzazun. Ez utz, beraz, etxetik ahanztirik, hain maite dukezun diru zukuttoa.

Eta, Euskal Herriko lurralderen batetan, arazo honi irtenbide zuzenik eman izan zaion herrixkarik ezagutzen baduzue, bide hori irakats zeniezagun eskatuko genizuke. Sarririk ikusten baita, jaialdiak antolatzearekin, oso etorkizun eskasak eta bizibide arras urria ematen zaiola, benetako sendotasun behar lukeen erakunde bati. Baldin nolabaiteko soluzio taxuzkorik bazeneuka, irakurle, saia zaitez aldizkari hortan edo besteren batetan agertzerara, edo eta Berastegiko ikastolara bertara bidaltzerara. Esker beroenak igortzen dizkizue aldez aurretik borondate oneko euskaldunorri. Bestalde,

Ikus beza bakoitzak
zer nahi duen:
hil zorian dagoena sendatu,
ala hilak piztu,
ala kandelak enterruan saldu.

TALDE BATE

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdy

Urteko abonamendua:

Bertorako	500 pezeta
Latin Amerikarako	550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4237449



BASERRIA

BASERRITARREN GERRIKOA HESTUTZEN

Urtero, Otsailean "Consejo de Ministros" batetan erabaki ohi dituzte zenbait nekazari produkturen urterako salneurriak, eta bistan da garrantzi handia duela nekazariarentzat erabakitzen denak.

Erabaki hau hartu aurretik FORPPA deritzon elkarteak proposamendu batzu egin zizkion Gobernuari. Proposatutako prezioen azpitik erabaki ohi direnez, nolabait gaurdanik jakin genezake gehienez zenbatekoak izango diren datorren kanpainako prezioak nahiz eta oraindik azken erabakia falta.

Prezio hauzi honek datozen egunetan zenbait ondorio jakingarri ukan ditzake baldin eta nekazariak ez badira konforme izango hartzen diren erabakiek.

Sar nadin gaurko sistema honen berri laburra ematera. Gure ekonomi sistema teoriaz merkatu librekoa izan arren —hau da, merkatuak erabakitzen du prezioa— sarritan, hainbat produktutan prezio erregulatuak ditu. Nekazaritzaren kasuan maila batetan nekazari zaintzearen izan ohi dira prezio horik.

Gaur produzitzen diren nekazari produkzio guztien balorearen % 55 —ek prezio ezarriak dituzte Espainiako Estatu mailan; Euskal Herrian daturik ez izan arren, ehuneko hori handiagoa izan liteke sartzen diren produktuak ikusita.

Prezio igote hau proposatzeko orduan, FORPPA-n barruan alde askotako jendea biltzen da. Alde batetik Merkatalgo eta Haziendako Ministerioak: Hauk ahalik eta guttien igotearen aldeko dira. Aurten, adibidez, bataz beste % 8 baino gehiago inolaz ere ez dute nahi. Hauek diote prezioak ez baina produktibitatea igon behar dela: baserri edo esplotazioak hobetuaz, kostuak jaitsiz.

Gaurko ekonomia kapitalistan industrigintzari ematen zaio batik-bat lehen mailako ardura, horretarako ahalik eta sendoen barruko eta kanpoko merkatua zainduz. Kontsumatzaileak industri eta zerbitzu produktuak kontsuma ditzan, ahalik eta guttien gastatu behar du janari gauzetan; gainera, haserreak baztertu egin behar dira eta horrengatik produktuen sortzaileei ahalik eta guttien ordaindu behar zaie. Guztiok dakigu tartekoak direla benetan janariak garestitzen dituztenak baina gaurkoz hauk libreago dabilta, monopoliak direnean behintzat.

Beste alde batetik, zenbait inportazio merkatal arrazoirengatik bakarrik justifikatzen dira, edo bitartekoen irabazi sendoak eragiten dituzten presioengatik.

FORPPA-ren barruan nor diren esaten hasi gara, eta jarraituaz, baita ere han biltzen dira "Nekazaritzako Ministerioa" eta "Hermandad Nacional de Ganaderos y Labradores" deritzon "baserritarren" sindikatua.

Aurten beren ikerketak egin ondoren, *Hermandadekoak* bataz beste % 28,55 igotea eskatzen dute. Esnearen kasuan % 16,66 bakarrik. Nekazaritzako Ministerioak berriz % 14, guztiak hartuta.

Gainera aurten da lehenengo aldia aipatutako elkarte guztiak ez direla bat etorri gobernuari igote bakar bat proposatzeko orduan. Dirudienez guztiak indarrean zeuden beren eskabideetan.

Hermandadeetakoak zenbait batzar egin ondoren beren artean (inoiz ez nekazariekin) kezkatu eta hasarre agertu dira mehatxurekin eta guzti (...*se verán obligados a actuar unidos y coordinados en todas las provincias en caso necesario*) beren eskabideak onhartuak izaten ez badira.

Guri behar bada gehienbat esnearen prezioa axola zaigu. Jakin dugunez udoaldirako eskabideak hauk izan dira:

Hazienda eta Merkatalgoak	12,75 pta./litroko
Nekazal Ministerioak	13,— " "
Comisión Consultiva Nacional Lechera	13,— " "
Hermandadeak	14,— " "
BASERRITARRAK	" "

Neguko prezioak pezeta bat gehiagoz ibiltzen dira udakoekiko.

Dakidanez baserritarrak ez dira konforme gauza guztiek ukandako igotearen ondoren aurreko eskabiderik handienarekin ere. Gainera, nork galdetu die beren nahia?

Nolabait prezio politika honekin baserritarrei tokatzen zaie diruekin gelditzen dira industri eta zerbitzu sektoreak.

Zoritarrez taldeik sakabanatuena baserritarrak izanik, guttien organizatuena, zapalduena, honetaz baliatzen dira gerrickoa ahalik eta gehien hestutzeko.

Gaur esne beiek balio dutenarekin, berekin duten arriskua, pentsu, makina, e.a. dituzten prezio erregulatu gabeekin, alde guztietatik hestutzen ari da baserritarren bizibidea, hestutzekorik duen neurrian.

Askok diote, prezioak igoteak ez duela konpontzen baserriko arazoa eta egia da noski, gure baserri esturktura ez da egokiegia merke produzitzeko, baina, ba dira esplotazio egoiak ere eta, zer gertatzen da horietan?

Nire ustez baserritarrei erdi kostuen gainetikako prezioak eskaini behar zaie; kostuak jaistera ere bultzatu behar zaie baina inola ez miseriara edo porrotera bultzatuz.

Etsipena handia izanik beldur naiz ez ote zaie agintariak merezi duten erantzuna emango. Hobe erratuko banintz.

J. M.^a ZEBERIO

ANAITASUNAREN OHARRAK

Azken aldi honetan, aldizkariak espreski eskatu gabeko artikuluak eurrez ugaltzen ari zaizkigu. Ongi etorriak dira. Ahalik gehienak argitaratzen saiatzen gara. Idazlanak hartzeko epea hil bakoitzaren 5ean eta 20an hixten dela adierazi nahi diogu idazleari.

Artikulu zenbait gaitzizen hutsarekin datorkigu. Izen eta deituraz ANAITASUNAN lanak argitaratzea nahiago dugularik ere, zenbait kasutan gaitzizenez jokatzea aise ulertzen dugu. Baina Zuzendaritzak, ezkutuki bada ere, egilearen izena eta helbidea ezagutu behar lituzke, harremanetarako eta gerta daitekeen gainerantzeko edozein konponketarako. Beraz, kasu bakoitzean, gaitzizenez gain egiazkoa ere bidaltzea eskertuko genioke idazleari.

EUSKAL HERRIAN



politika

Felipe González EUSKAL HERRIAN



Felipe/Bilbon

Eten demokratikoa beharrezkoa dela esanez eta aho betearen eskatuz, Euskal Herriko espaloitik ibilaldi luze eta airoso bat eman gura izan du Felipe González andaluziarrak.

Bilbon kazetariei ordu bete eskaini zien, bere alderdiaren jarrerak eta kinkak agertzeko. Euskal Herriari buruz, PSOEek, gudu aurrean zuen jarrera berberari eusten diola esanez hasi zen. Geroago esan zuenez, herriak berak bakarrik erabakiko du bere berjabetasuna, autodeterminaziorako ordua heltzen denean.

PSOEkoek Euskal Gobernuaren barnean irauteko asmoa dute. Espainol deitzen den talde bat euskaldun deitzen den Gobernu baten barnean egotea ez zaie iruditzen kontradizio denik (bai kontradizio dialektikoa, noski).

Ez bide dute ezagutzen Euskal Herrian dagoen talde sozialistaren programa politikoa; baina ez zaie arraro egiten,

talde sozialista berri hori sortzea, mundu guztian ari baita ugaltzen talde sozialistak.

Klase arteko burruka Estatu mailan planteatu behar dela garbi ikusten dute PSOEkoek. Adibidez, ez datoz bat Valen-
ciako talde sozialistarekin. Talde honetakoez, beren burua autonomotzat dutelarik, harreman berdina nahi lituzkeen Belgika eta Espainiako sozialistekin. Felipearen alderdiak du horrela pentsatzen, jarrera hori banatzaile eta ez batzaile delako.

Kazetariekin elkarrizketa amaitu ondoren, Sarrikora abiatu zen, hitzaldi bat emateko asmoz. Alde eta kontrako zaretan artean, eta boikot giro batetan, hamar minutuz-edo gaur generiko batzu aipatzeko aukera larria izan zuen. Bertan gertatua aztertu ondoren, zera esan daiteke: Euskal erakundeak behar ditugu landu, burrukak eta ekintzak kanaliza daitezkeen inpotentzia itxura eman gabe; batzuk bakarrik (eta ez guztiek) hitz egiteko duten aukera merkea salatu behar da, baina modu organizatu batez: hitz egiteko eskubidea denok dugun ukabilka hasteko eskubidea ez eduki arren.

INATU

Eibarren

Otsailaren 15ean, Espainiako Estatupeko leku askotan bildu zen jendea Eibarren. PSOEren mitina zegoen, González eta guzti, eguerdiko hamabietan, Astelena frontoian.

Zergatik aukeratu ote dute Eibar, azken berrogei urteetako lehen mitina egiteko? 1931ean bilatu behar da arrazoi hain zuzen urte horretantxe Eibar izan zen Errepublikaren proklamatu zuen lehen herria.

Munta handikoa zen Eibarreko test hau. Hiru helburu ikusten dizkiot Eibarrekoari. Europari begira Alderdiaren erakar-indarra erakustea, Estatu mailan Alderdiaren indar bultzatzea, eta azkenik, Euskal Herrian bertan burkideak izatea, arrakasta izanik.

Beren ustez, ongi muntatua zuten Eibarreko mitinaren Benigno Baskaran Eibarreko sozialista zaharrak eman zuten hasera mitinari. Herriko euskaraz kontatu zigan PSOEko Euskal Herrian izan duen historia osoa.

Enrique Múgica Herzog Donostiako abokatua eta PSCEn Euskal Herrian duen Idazkari Nagusia mintzatu zen gertatuaren autodeterminazioaz eta abar.

Asturiaseko eta Gasteizeko bi langilek ere hitzegin zuten greben berri emanez eta UGT sindikatua aupatuz.

Azkenik, eguneko vedettearen txanda etorri zen. Felipe González abokatuak Euskal Herriaren burrukatasuna eta Penintsulako Herrien autodeterminatzeko eskubidea erabazteko zituen bere lehen pasarteen gai bezala. Askoz gehiago esan zuen entzuteko moduan hitzegin. Talde bat edo beste oinarri eta "Eusko gudariak gara" abesten hasi baitziren. Hala ere, iskanbila, hura! Makila eta guzti joan zitzaizkien ordenera jartzaileak. Burrukaleku bilakaturik ikusi genuen frontoian atzekaldea.

Han gertatuaz, han bertan eta kaletan entzun genuen puntuka bada ere, komentario gisako ohar zenbait egin genituen gure gure, euskal irakurlearentzat.

"Bilbokorik gerta ez dakigun", PSOEko Enrique Múgica esan zigunez, alderdikoez bete zuten lehendabizi Astelena frontoia, beste zenbait hamar terdrietatik aietan zain egon arren.

Denetik bildu zen Astelena frontoian, leku askotakoak erabiltzen pentsaera desberdinetakoak. PSOEkoak gehienak, pentsatzen dugunez. Begiraleak ere ugari ziren, han zer gertatzen ikustera joan zirenak halebategia. Eta gero, mitina boikotatzera joan zirenik ere agertu zen.



Eibartarren eritziz, Eibarreko ez zen jende asko zegoen han. Gazteria sozialista, oso osoan kanpokoa omen zen, PSOEk Eibarren gazterik ez omen du eta. Eta hori bi arrazoi-gatik, immobilismoan etzan delako eta euskal problema bizitzen jakin ez duelako.

Euskara ez zekien asko zegoela ere, bistako gauza da, Baskaranen hitzaldian ez baitzekiten noiz txalo egin. PSOEko sozialisten aldetik euskarazko oihi guti entzun genuen. Eta dena esateko, pankarta bat bakarra ikusi genuen euskaraz idatzia, bat bakarra.

Kanpoan, biltzar ondoren ikusi genuenez, eta autobusetatik atera daitekeen neurrian, Bilbo ingurutik eta Penintsulako hainbeste lakutatik inguratu bide zuten jendea PSOEkoek.

Bilkura, mitina, boikotatzera jo zutenak, Eibarreko ELAkoak bide ziren. ELAko beste zenbait ere ikusi genuen han. Abertzale ezagun asko ere bai.

Eibarreko abertzaleak, nahiko ustekabeen harrapatu izan arren gertakari honek, bilkura bat baino gehiago egina zuten. PSOEkoek hitz egiteko beta eskatu ere bai. PSOEkoen ukapena hartu ondoren erabaki omen zen, Feliperen azken partean, protesta gisa, oihi abertzale batzu egin eta gero "Eusko gudariak gara" abestea.

Bilkuraren azken parteak ez zuten PSOEkoek ongi zuzentzen jakin. Ofizio falta ikusten da hemen, ohiturarik eza. Ustelduz ustelduz joan zen mitina. Gerturik zeukaten kalemanifestazioerik ere ez zuten egin.

Gertatuari buruz zer esan? Hitz llaburretan analisi sakon bat ezinezkoa izanik, bi lerro.

Hasarre ikusi nituen PSOEko nagusiak. "Nori egiten diozue jokua" galdetu zien boikotatzaileei Felipek. "Gobernuari egiten diote jokua" esan zigun zalantzarik egin gabe Múgica. Hasarre egotea, bidezko iruditzen zait. Ez hain bidezko, ordea, arrazismoaren eta abertzalekeriaren lepora beren kontrako edozein manifestazio botatzea. Politika mailan aztertu behar dira gertakariok, politikoak dira eta. Edota PSOEren intentzioa ez al da ba politikoa? PSOE bezain ezker eta gehiago euskal talde eta alderdi bat baino gehiago dago Euskal Herrian, eta gainera *euskaldunak* dira. PSOEk hori onhartzen ez duen bitartean elkarriketarik ez dugu erraz ikusten.

Kalean bati baino gehiagori entzun genionez, ba zen beste analisirik ere airean. Nork nori jokua egin? Ez ote, gero, PSOEkoek gaurko gobernuari, liberal aurpegia Europaren aurrean agertaraziz, eta bidenabar, kolpe berez, komunismoa eta nazionalismoa indargabetuz? Penintsulako Ezkerraren monopolioa, gainera, PSOEk izango luke kasu horretan.

Zer egin? Boikotatzea, besterik gabe, negatiboegi ikusten dugu. Holako ekintza baten aurretik indarrak ongi neurtu behar dira, politikazki neurtu ere. Politika ez da kontrakolpez puskatuz egiten. Euskal ezkerrek ezin du, bestalde, bakarka jokatu.

Joan Larrinaga

Lintzirinen:

P. S. O. E. eta euskara

Otsailaren 15ean, gaueko 8etan, Oiartzungo Lintzirin hotelean P. S. O. E.-k antolatu zuen kazetaurreko elkarriketara deitua izan nintzen. Enrique Múgica Herzog-en deia jaso zuen Zeruko Argiak.

Euskal aldizkari bateko berri-emalea nintzenez gero, euskaraz mintzatzeko eskubidea ba nuela uste nuen. Euskal Herriari saldukeriarik egin nahi ez banion, euskaraz mintzatzera beharturik nintzela iruditzen zitzaidan.

Nik ez nion Felipe González euskaraz jakiterik eskatzen, euskaraz eta gaztelaniaz zekien itzultzaile bat eskatzen nion.



"Alemaniarra joan izan bazineta izango zenuten interpretea, lotsagarria da benetan hona inor gabe etortzea".

"Euskaldunok ba duzue euskaraz mintzatzeko eskubiderik, norbait beharturik egon daiteke gainera. Baina ez ezazu gehiago euskaraz galdetu", esan zidan Felipe González-ek.

Enrique Múgica Herzog-ek, berriz, honela biribildu zuen P. S. O. E.-ren pentšamoldea: "No es cosa de establecer una dictadura con la pretensión de imponer el idioma a los que sólo hablan el castellano... El P. S. O. E. está en contra del racismo... El racismo es la mayor de las dictaduras y estamos en contra".

Kazetaurreko elkarriketak ordu laurdenen bat iraun zuen. Erabat petraldurik amaitu egin zuten ihardun hura.

Beste erdal kazetari batzuekin hizketan ari nintzela Felipe González-ekin zebilen emazteki bat hurbildu zitzaidan "Viva Euskadi Nazi" esanaz. Behin eta berriz entzun behar izan nion gauza bera, Hitler-en labe goriak ere eskaini zizkidan.

P. S. O. E.-ren alde atera dira LA VOZ DE ESPAÑA eta HOJA DEL LUNES. Loiolako eta Donostiako herri-irriatik eta euskal aldizkariak atera dira nire jokabidearen alde. Zergatik ote?

P. S. O. E.-k diktadoretzat, arrazistatzat eta nazitatzat jotzen du euskal kazetari batek euskaraz hitzgetea.

Mikel Atxaga Fernández

Donostian

Sevillan eta 1942.ean jaio zen Felipe González. Lege karrera amaitu ondoren PSOEkoa egin zen. Bere partidukoek Sevillan ezkertiarizat hartzen zuten. Suresnes-en 1974.eko Urriaren bildu zen XIII Kongresuan Sekretari Jeneral izendatua izan zen. Batzarre berean Enrique Múgica Herzog sekretari koordinatzaile ezarri zuten, erantzunkizun zehatzik gabeko kargua berau, baina garai hartan partiduak Gipuzkoari ematen zion garrantziaren ezaugarri. Múgica, lehenago PCEkoa izanik, 1964.etik PSOEko milintantea da eta partidu barruan gorabehera serioak ukan ditu, bai duen inprobisazio gehiegi-giatik, bai pentsaera aldatze erraxegi-giatik eta bai 1972.eko Kongresuan erabili zituen azpilan nahasiegiak zirela medio ere.

Felipe González Euskal Herrian zehar aritu izan zaigu ibilaldi politiko batetan: Bilbo, Eibar, Oiartzun, Donostia... Koardro berriak ezar eta euskal langileriarekin berririo harremantetan hasteko, bere partiduaren asmoak dakarzkigu. Garai batetan Euzkadiko Gobernuan hiru ministerio eta Bilbo inguruko burdinazko gerrikoa defendatzera hamalau batailoi ukandako partiduak (gaur berriz hemen hil zorian) bere burua birbiztu nahi duela dirudi, Felipe bitarteko.

EUSKAL HERRIAN



Abertzale kutsuko taldeei entzun behar izan dizkie bereak Felipe González-ek ibilaldi politiko honetan. Euskal kantuak, zaratak, euskarazko galdeketak eta erantzunak noiz eta non-nahi jaso ditu bere hitzaldietan.

Donostian, Zuzenbideko fakultatearen *campusean* beste inon baino hobeto azaldu ahal izan zigun bere joera politikoa. Han ere hitzaldiaren ondoren mikrofona eskaini zien entzuleei. Kontrako pentsaerak, nahiz eta besteetan bezain zaratsatu izan ez, ugari izan ziren Donostian ere. Indar demokratik oro batu beharrez ihardun zuen Felipek, guztiok bat egini, fronte antidemokratiko gogorrenen kontra jokatzeko. Estatuaren estruktura federalista ere aipatu zuen; honetan UGT berrorganizatzen ari den Pablo Castellano Madrileko abokatuaren tesiari eusten dio, Estatu Konfederala eskatuz, halebila. 1974.eko Maiatzean ere nazionalitateen autodeterminazioari buruz mintzatzen ziren.

Zenbait alderdi politikoren eritzi ezberdinak ere entzun genituen; Batzarre Demokratikoak eta Langile Komisioek Felipe González erabat onhartzen zuten. Hemengo benetako leader politikoak gartzeletan bazterturik daude. inork entzun ezinik, zioen preso politikoen abokatu defendatzaile batek, eta beronekin batera etorri ziren ORT eta LCREko batzu ere. Azkenik Euskal Herriak bere kulturaren galtzori larriaren kontzientzia hartu beharra duela adierazi zigun ikastoletako irakasle batek.

Ene ustez, PSOE, Sevillatar bat hemengo kanpaina politikoa egitera bidaltzean, bide okerretik datorkigu; kontuan hartu beharko zukeen Euskal Herriko nazional sentimendua. Elkarrizketa, batzarre eta mahai inguruetan euskaraz zekien inor ez edukitzean ere, ez da zuzen ibili. Are gutiago azken egunerarte seta berean irautean. Baina, hala ere, euskal kultur arazoan baztertze honek ez gaitu batere harritzen, ez eta geure Herrian geure hizkuntza erabili nahi dugunok arrazistatzat hartuak izateak. Aintzinatik daramate barruan euskal gaienganako ezin ikusi hori, eta eboluzioak ez dirudi aurrerakada handirik egin duenik sozialista horiengan.

Lehengo lepotik burua, Juan José Solozabalen *"El primer nacionalismo vasco"* liburuan irakur dezakegunez: *"Su entendimiento de la nacionalidad española, en un sentido uniformador y primario, llevó a los socialistas a cometer gravísimas injusticias con una cultura y un pueblo que se negaban —con razón— a desaparecer como tales. Confundieron en sus ataques elementos deleznable..., con singularidades riquísimas que su humanismo sincero debería haber defendido"* (202. or.). Sozial eta kultur arloan 40 urte luze itozorian iragan dituen Herriera datozkigu, sozial erradikalatasuna erokerria eta kulturaren irauin nahia arrazismoa dela predikatzen. Bihotz zabaleko ahalegin batez, euskara beraiek ere errespetatzen eta bultzatzen dutela esateraino ere heldu dira. Hileta aurrerako errespetutxoak ez ote den gaude.

Aparteko aipamena merezi digute Felipe González-en kontra mugitu diren taldeek. Boikot era hau eragileek bezain efektiboa ez izatea gerta daiteke. Euskal alderdi ezkertiarrek ohituak gauzate antzeko jokaeretara eta erreakzioak, ia beti, ezin pobregoa izan dira. Zabalduegia da, geure artean ez eginarene eta besteei egiten ez utziaren teka erraza. Ahantzi ote dugu politika lana Herriarena dela, ez talde ttiki, hertsu eta zaratsatuena? Herriaren sentimenduak errespetu handiago merezi du, nahiz eta kaleko jarraitzaile arruntak politika gaiak behar bezain ondo ez menperatu. Urtetako ixilunea aski da hori esplikatzen. Baina goi-errepresioak ez ditu culpa guztiak.

Xabier APAOLAZA



ANAITASUNAREN OHARRA

ANAITASUNAKO idazleok erabat ados gatoz Mikel Aizaga, ZERUKO ARGIAren zuzendariaren jarreraz. Berak dioenez, F. González jaunak euskara jakin beharrik ez baitu eragiten euskara dakien norbait ondoan edukitzea arduratu beharko zuen. Zeren ba dirudi Múgica Herzog burkidea hutsune hori betetzeko gai ez zela izan, eta berorren ganak hori ez da inondik ere barkagarri, *Euskaldun (berri)ekin euskaraz* liburuaren egileek bertoko politikariek salhatzen duten na egia hutsa baita.

Erregeak Katalunian katalanez egin badu, PSOEkoek Euskal Herrian euskaraz egitea gehiegi eskatzea ote? Ala hizkuntzen salbazioa eskuinetik etorriko zaigula pentsatu beharko ote dugu?

LANA

FORJAS, ARANZABAL, AREITIO, GABILONDO MEVOSA...

Ez dut uste Gasteizeko langileriak oraingoaren artean elkar lan eta elkar ekintzarik ezagutu duenik. Grebarako erraz eta eurrez hedatu da bertoko fantegietara.

— Urtarrilak 9: FORJAS lantegia kaleratzen da: 1.700 langile.

— Urtarrilak 10: MEVOSAK segitzen dio: 2.100 langile. Ondorengo egunetan: ARANZABAL, 800 langile; GABILONDO, SETECO, CABEZA, NOR, AGROTOR, RENOR, AREITIO eta ORBEGON (Agurainer),

Langileak zergatik kaleratu diren? Kausa ugari dituzten ere, bat dute nagusia: Alokairuak mugazartzen (relatzen) zuten Dekretu hospetsuaren aurkakoa. Gutti goraerabazte honela konkretatu dituzte beren eskakizunak: 6.000 langile gehiago hiltzen. 40 orduko lana astean. Hilabeteak irabazteko. Gaixote eta akzidente garain % 100. IRTIP. enpresaren kontura. etab...



DESPIDUAK

Arazo hauetan entresesak beti egin ohi duenez, langile burukalariak kalean uzten ahaleginduko da orain ere. Forjas lantegian 23. UTECO-VELASCO, 3. Besteetan ez dakigu oraindik zenbat izango diren. Langileek noski gogor egiten dute puntu honetan: Barrura DENOK ala INOR EZ! Eta honela irauten dute hilabete luze batez.

Langileek beraz elkaturik dihardute burrukan. Egunero elkartzen dira hiriko elizetan elkar lan hau indartzeko eta zenbait informazio eta maniobra zatikatzailei erantzun bakar bat emateko.

Entresesa bakoitzak bere BATZORDEAK ditu langile guztien artean aukeratuak. Entresesako Juraduen dimisioa eskatu dute. Goitik beherako SINDIKATUA alde batetara uztea erabaki dute.

KONPONBIDERIK EZ?

Langileen baldintzak hauk dira;

— INOR EZ kalean!

— Entresesari Kontseilua eta langileen Bazordeak konpondu behar dute arazo hau. (Horretarako Batzorde hauek onhartuak izan behar dute).

ASANBLADAK, MANIFESTAZIOAK

Langileriak hilabete batez eta oraindik ere gogor segitzen badu, egunero egin dituzten asanbladei esker izan da. Asan-

blada hauk entresesa bakoitzekoak eta orokorrak izan dira. 31. an adibidez, 6.000 langile elkartu ziren Zaramagako San Frantzisko elizan, greba hau beste lantegietara ere zabaltzeko asmoz. Ondoren langileak, milaka, lohihartzekoa eta guzti, Gasteizeko kaleetan zehar manifestatu ziren.

Hil honen 2. an ere Asanblada Orokor bat egin zuten eliza berean. Asanblada hartan, langile guztiok Entresesari Kontseiluarekin elkar hizketatzea erabaki zuten eta denak, Batzordeak buru zirela, sindikatu ingurura abiatu ziren. 8.000 langile berriro ere kalean ikusirik, Poliziak gogor eraso zien Gasteizeko sarreran, eta inoiz ezagutu ez dugun eran eraso ere. Ez zuten honelakorik espero langileek. Baina halaz ere, 3.000 inguruk sindikatu aurreraino iristea lortu zuten. Han berriro ere gogor eta ustekabeen eraso zien Poliziak.

9. an, astelehenez, entresesa guztiek zabaldu dituzte beren asmoak baina langileak ez dira sartu. Langileen asmoa zera da orain:

— Gasteiz osoa kalera; langileak, ikasleak, eskolak, etxe-koandreak etab.

Lortuko ote? Zail samar ikusten dugu helburu hau. Maisuak ere hasi dira baina lantegi asko ari da oraindik lanean. Entresesak oraindik ez du ezertan ere amorerik eman.

Langileen buruak beroturik eta mihiak zorrotzurik daude. Amorrus josiak daude baina oraindik ez dugu argi izpitxo bat ere ikusten konponketaren atarian, otsail honen 15ean.

Juanjo URANGA

GOIHERRI: RESIDENTZIAREN ARAZOA

Goiherriko hamalau Guraso Elkarteek argiratzen dute agiri informatibo hau, Zumarragan finkatu nahi den Sanidade Residentzia dela eta, Madrilen eman diren pausoak eta eduki diren harremanak argitu nahirik.

1975. go. Azaroaren 23. an, Elkarte hauek agiri bat azaldu zuten. Agiri hartan ematen zen Zumarragarako erabakita zegoen Sanidade Residentziaren alde eta Beasaingo Espezialidade Anbulatorioaren alde eman ziren pausoen berri.

Agiri hartan geure harridura eta atsekabea azaltzen gertatu, eta Madril (I. N. P.) Prebisorako Instituto Nazionalak, 1974. go. Maiatzaren 10. ean erabakitakoa baztertzear, hartzen zuen postura berria ezesten genuen. Erabaki hori zen hain zuzen Zumarragan kokatuko zen Gipuzkoako bigarren Sanidade Residentziaren alde hartu zena, Elkarte hauek hala eskatzen zutelarik. SIADEKoren azterketa sakon batean funtsatuaz.

Gure asmoen zuzentasunak eta gure helburuen premiak bultzaturik Madril aldeko goi-mailetara jotzea erabaki genuen. Ikusi ere hain beharrezko ikusten baikenituen Residentzia eta Anbulatorioa Goiherriko eta Urola Garaiko herrietzat.

1976. go. Otsailaren 5. ean Guraso Elkartearen ordezkari komisio bat izan zen, Madril, Sozial Seguritateko Direzio Orokorrean eta Prebisorako Nazional Institutoko Kontseiluaren Presidentzian. Hemen, ondoren, emango dugu han edukitako harremanen zenbait puntu.

a.—Pozik jakin genuen I. N. P. ko Probintzi Kontseilua Zumarragako bigarren residentziaren alde azaldu zela (I. N. P. ko Nazional Kontseiluaren aurrean), eta bere konformidaderik eza azaldu zuela Residentziaren altxatzea I. N. P. laugarren programan ez zegoela ikustean.

b.—I. N. P. ko Probintzi Kontseiluaren erabakia da, esan zigitenez, Nazional Kontseiluarentzat baliozko kriterio bakarra, Gipuzkoako Sendakuntza Ekipatzearen zabaltzea planteatzekoan.

d.—I. N. P. ko Probintzi Kontseiluak erabakia deszentralizatze politika baten hildoan omen doa. Beharrezko ikusten

baitute deszentralizatzea sendakuntza zerbitzuen herriarekiko efikazia handiena lortu ahal izateko.

e.—Aurreko eritzi hoi eta Residentziaren atzerapenaren artean zegoen kontradizioa ikusten zelarik, Donostiako Geriatrikoaren arazoa aipatu ziguten. Oso posible omen; Donostiako Geriatrikoa, haserako helburuak bazterturik, Gipuzkoako bigarren Sanidade Residentzia bilakatuko omen da...

Une hartan aipatu ez bagenuen ere, orain kezkatzen hasiak gara. Geriatrikoaren aldakuntzak eta berrikuntzak ez ote ditu bereganatuko Zumarragako Residentziarako pentsaturik zeuden I. N. P. ko finanziaio bideak eta diru iturriak?

f.—Esan zigitenez, gutxi barru erabakiko omen dute bi lan hauen artean zein den lehengokoa, eta beharrezkoagoa. Honek ez zituen ezabatu gure kezkek, ikusten baitugu ikusi Zumarragako Residentzia oso zalantzan dagoela, eta kontuan harturik Donostiako Geriatrikoa dagoneko altxaturik dagoela, bere aldakuntzak inbersioa haundia eskatzen badu ere. Ahatik, ez dugu ahaztu nahi I. N. P. ko Probintzi Kontseilua Zumarragako Residentziaren alde azaltzen dela.

Guraso Elkarte hauek, Goiherri eta Urola Garaiko Sanidade Beharrek eskatzen zuten erantzuna garbi ikusirik, I. N. P. ko Probintzi Kontseiluaren asmoekiko adostasun irmoa azaldu zuten puntu honetan.

Arazo hau hain gertutik eta hain hestuki bizi behar litzukeen Udaletxe Kontseiluaren babes eta lagutza eskasa ikusirik, eta gutxi barru hartuko den erabaki garrantzitsuen aurrean gaudelarik, dei bat egitea erabaki dugu kontura daitezen egoeraren larriaz, eta dagokien parte bere esku har dezaten, eta horrela Gipuzkoako bigarren Sanidade Residentzia Zumarragan finka dadin, egun hartan erabaki zen bezala, eskaera serio eta zuzen bati erantzunez eta azterketa sakon batek azaltzen zuen premia larri bat bete beharrez.

Laguntza eta babes eske gatzoz erakunde, elkarte, entresesa eta gure nahi zuzenekin ados dauden guztiengana. Izan ere gure asmo eta nahi hau herri langilearen sanidade premiari erantzutea baita, eta ez besterik. Herri langilea da hain zuzen Sozial Seguritateak jasotzen dituen diruen iturria.

1976. go. Otsailaren



ipar aldea

Marc Légasse kontseilari jeneral gai

Kontseilari jeneralak laster hautetsiko baitira, Marc Légasse idazleak bere burua Donibane Lohitzuneko kantonamenduan presentatuko duela jakin erazi du. Haren izenbandera: E.K.A., erran nahi baita "Euskadi'ko Autonomia" (sic). Haren programa: 1946.ean berak idatzi zuen eta Etxeberri-Aintxart orduko deputatu baigorriarrak aurkeztu zuen Ipar Euskal Herrirako estatutua. Duela hiru urte Baionako kantonamendu batetan, % 4 bildu zuen.

Zer kopeta!

Frantses Telebistak eman ikuskizun batetan euskararen egoera aipatua izan baita, Haritschelhar jauna, IKAS Batasuneko lehendakari gisa, Administrazioaren aurka bortizki mintzatu da. Gaur euskararen irakasteko dagoen legea errespetatua ez dela erakustera emanez, azkenean egoera ahalkegarri eta pairagaitz horren aldatzeko zerbaite egingen ote duen galde egin dio Ministroari.

Erantzuna Bordeleko Akademiako Erretoreak eman dio. Den mendreneko lotsarik gabe alegiak eriaz elakatu da; beste ateraldi harrigarri zenbaiten artean, ikastolak Estatuak sorteziaziki direla aditzera emanik. Bietarik: zozo ala gezurti. Frantses Unibertsitatea sobera errespetatzen dugu, Erretore gisa zozo bat hauta dezakeela pentsatzeko.

SEASKAk lehendakari berria du: JON SEILIEZ

Ipar aldeko ikastolak biltzen dituen SEASKA Batasunak, lehendakari berri bat hautatu du: Jon SEILIEZ. Argitxu NOBLIA lehendakari-ohiak bere karguaren uzteko xedea ezaguterazi zuen aspaldian. Beharrik segida ona eman diotela Jon SEILIEZ euskaltzale zintzo eta langilea hautatuz. Euskaldun berria, Jon SEILIEZ, etorkiz, Frantziako ipar aldekoa da. Euskaldun "Rhésus" (-) dun asko baino biziki euskaldunago noski.

OKAPI, frantses haurrentzako aldizkari kristaua, esenplu ematen

OKAPI aldizkariak, Urtarrileko bere 99. zenbakian, "Euskaldunak" hartu ditu aztergaitzat. Holako gehienetan ba dakigu nola erakusten diren euskaldunak eta zer irudinen bidez: kontrabanda, pilota, dantzak, Voltairek erran zuen bezala: "Prinzipierako oinetan kantuz eta dantzari aritzen den populu txikia".

OKAPIk aldiz, indar berezi bat eman du egiazko Euskal Herriaren erakusteko. Nekez oinazetan, bizi dena. Biziki sinpleki ordea, marrazkiz kontatu historio baten bidez, haurrek erraz konprentzi eta segi dezaten. Zinez lan ederra.

EUSKAL HERRIA NORAINO?

ANAITASUNA hau urte honetan haseratik eraberritu da gu eta bai kemenez doblatu ere gure ustez. Bere lehen eserialean irakurtzen ahal dugunez, ez zaigu beste ANAITASUNA berri bat bihurtu nahi eta gutiago oraindik zapiak jokatzeko asmoz ibili: eguzkia nora zapiak hara.

Guk ere pentsatzen dugu ez dela arazo berria gure artean solastatzea, ea zeintzu eta norainoko mugak Euskal Herriak dituen jakitea. Aspaldi aspaldiko leloa dugu berau, batzuetan beste batzutan baino goriago euskal plazara agertu bada.

Oihenarte zuberotarra **Vasconia** handiaz mintzo zaitza. Moret nafar historigilea ere ez zaigu zapi probintziaren Euskal Herriaz mintzaten. Duela zenbait urte Federico Xarraig euskaltzainak publikaturiko liburua arraskasta hartu izan zuen bere kontzeptu guztietan, geografikoak baino Oraintsuago E. H. A. S. euskal sozialist erakundeak ere gutxi tutxo hau ukitzen du bere agirian, Txillardegiren **Huntzartaz Hartaz** liburuan Biarnoaz lan paregabe eta gutxiok irakurri ikusten ahal dugu, J. L. Lizundiaren lanetan ere argi dago, ederrik idoro dezakegu geure arazo honetaz. Dena den, gure gustokoa (eta gutiago jutziazkoak) ez den eritzirik Gernikako hirian zabaldu dute "**Juntilla antidemocrática Vascongado**" koek.

Jean Pierre Seiliez nor den euskal gizon publikoaren artean galdetuko du norbaitek. Egun oraindik hegoaldeko mende guti ezaguna bada ere ez da horrela jazozen Ipar Euskal Herrian. Iparraldeko ikastolez arduratzen den SEASKA dugu berau, irakasle izateaz gain. Txillardegi euskaldun baten esker jakin genuen J. P. Seiliez tesina bat egiten ari zela Biarnon euskaraz oraindik mintzatzen diren herriez.

Baionan elkar ezagutu ondoren honako elkarrizketa egin genuen:

-Txillardegiri entzun diodanez ba duzu Biarnoaz zerbait esateko.

-Bai. Biarno euskaldun izan da eta oraindik ere hori da, parterik handieneaz euskara galdu bada ere. Ogei euskaraz mintzatzen diren herriez eta hainzuek lan bat mintzatzen dihardut.

-Biarnori gertatu zaiona Biarnon gertatu dela uste duzue uste duzue ala beste zenbait lurretan ere bai?

-Biarnoaren kasua historiaz gugandik hurbilena da eta ez da Biarnon bukatzen.

-Non bukatuko litzateke orduan?

-Niretzat Aturri haranak (Pays de l'Adour) ba du euskaraz bat eta baita euskaltasun bat. Niretzat oraindik euskaldun da. Eta euskaldun sentitzen du bere burua, baina kalifikazio hori ez erabili.


-Xuxen xuxena zer da Aturri harana?

-Handi handizki eta zehetasun gabe: eguriga Lapurdi Nafarroa Beherea, Zuberoa, Biarno, Haut Pyrenees, Anaitasuna eta Landak.

-Zeintzu dira hiri hadienak?

-Baiona, Pabe, Tarba, Aire, Mendimartzana, Akize, Oloro, heze, Oloro.

Seiliez-ek esan digunez Paberri ikastola bat marrazkiz Euskarazko eskolak ematen dira Mendimartzanari, Oloro ikastola bat zabaldu zen, gero itxi eragin badute ere. Akizeko lizeoari ikasleak eskaturik euskarazko eskolak emateko zineri baina irakasle faltaz ezin izan da. Orthezetik berri erantzuten da laguri andana bat Baionara hant egiten diren euskarazko manifestazioetara. Euskalduna kazeta E. H. A. S. Euskarazko Herriko Alderdi Sozialistarena dena, zabaltean oinertu da berri batetan behintzat, Aturri haraneko herri handiokuzuek. Gure seinale da hau? Seiliez-ek ba du Euskaldunak 11. urteko guzti honetaz lan bat inork irakurri nahi balea.



"GREBA APURTUA"

Titulu hori beren lehen horrietan tinko ezarririk, Espainia osoan diren sei edo zazpi astekari azagunenak —eta, ba liteke, hoberenak— bat batean ateratzea erabaki dute, hamaika harreman luze eta latz, "Asociación de la Prensa" delakoan, erabili ondoren.

Ez zen hori lehenen erabakia, aste honetan (16-21 - II, 76) atera gabe gelditzea baino. Baina, azken orduan, hitza emanik eduki arren, aldizkari batek denen artean hartutako lotura hura hautsi zuen: "Cambio 16" ek, hain zuzen.

Horregatik, beste aldizkari guztiek, "Cambio" ezik, ahal izan duten moduan, ergel eta horriz mozturik, irten behar izan dute kalera, beren aurka jokatu duenari arloa —hau da, irakurlegoa, aste honetako albisten monopolioa eta, ondorioz, dirua— franko eta beretzat bakarrik gel ez zedin.

Arazo korapilatsu honen benetako mamia norbaitek luze eta ongi ezagutu nahi baldin badu, irakur beza "Triunfo" ren aste honetako zenbakia. Barren barreneko mamia, Vazquez Prada eta sekretu profesional guztien gainetik, espainiar kazetaritzaren etorkizuna bera da. Zeren egoera bi baititugu hemen elkarren aurka: bata, orain arte agintarien morroi apal bat izan den prentsa, "zabalkunde haizeen" zarataz noizbait esnaturik, beste era batetara gizaritari zerbitzu kritikoago bat eskaini nahian dabilena; eta bestea, "agintari klase" edo gutti batzuren talde hori, bere iraun nahi amorratuan, prentsa aldetik etor zekizkiokeen kritikarik ttikiena uxatu, debekatu edo eta zigortu ere egiteko prest duguna.

Egoera bi hauen artean, historiak, etorkizunak berak, ba du bata hautaturik, baina biotatik zein den etorkizunekoakin jakin arte, beste pixka bat itxaron behar.

BERNARDO ARRIZABALAGA

ROMERO JOAN ZAIGU

"Romero" idazterakoan Emilio jauna aditzera eman nahi izan dugula bistan dago. "Joan" dela ez dakienik aurkitzea, kazetaritzarekin zer ikusirik dutenen artean behintzat, ez litzateke hain gauza erraza.

Baina, azkenit, "zaigu" horrek ere ba du bere esannahia: *denok*, bakoitzak bere neurrian, igaro den urte mordo honetan, geure buruen gainean gizaseme hori eduki dugula, eta, besterik ez.

Hasera batetan, zurrumurr-1 bat baino ez zen: joan (edo egotzia izan) beharrean herstu xamar zebilela. Eta zurrumurr-1 horrek bere baitan zekarren atsegin-kutsadura, "universa-1" moduko "zerbaiten" neurri bezala agertzen zitzairen Madrilako barne-historiaren kronistei.

Joan zaigu, edo hobeki, joan zaie. Eta baztertu denez gero, esan daiteke Madrilan, bai beldurra eta bai gorrotoa ere, guttiti direla. Honelako lore bat ihartzen denean, ba dakigu urtaroren aldaketan gaudela.

Izan bada izan da, urtaro luze baten lorea, eta, ene ustez, joan bada, joan da, betiko loreak doazen bezala, berekin lurra ere eramanez.

BERNARDO ARRIZABALAGA

Zaharrak berri...

Juan Carlos erregek Estatuaren buruzagitza hartu zuenez geroztik, diktaduratik demokraziara iragaiteko esperantza piztu da espainiar askoren artean. Politikaz inoiz baino gehiago mintzo da jendea. Politikariek, etorkizuna moldatzeko, beren planak ozenki aldarrikatzen dituzte.

Agintean daudenek ere, aldakuntzaz ari zaizkigu.

Halaz ere, hainbesteko hitz jarioari legokiokeen benetako egitur berritzea ez da inondik ageri.

Alderdi positibo bakarra (edo "eznegatiboa" egokiago): zenbait kasutan —ez guztietan— poliziak hartu duen jokabidea eta sozial komunikabideetan nabari den irekitasun handixeagoa.

Hortik kanpora, beste dena, oraingoz, Francoren garaikoa da. Hitzak ere ez dira beti esperantzaren pizgarri izan, eta are gutiago izan dira Arias Navarrorenak beraren azkenengo hitzaldian. Nekez izan zitezkeen, Gorte kontserbatzaile porrokatu batzumentzat pentsatuta baitzeuden.

Iluna eta axalekoa izan zen Gobernuak duen etorkizun asmoaren agerpena.

Aipatu zituen lege aldaketak, ez zuen esan nolakoak izan diren.

Mendebal Europako egoerara iristeko, ez zirudien oso aproposa Gobernuak lehendakariaren **jarrera**, hitzez asmo hori azaldu arren. Amnistia osorik ez, alderdi politikoen legezterik ez, herriak eta herriek bizitza politikoa nola moldatu nahi duten galdetzeko biderik ez.

Epe jakinerako konpromezuen faltan, etor litezkeen ekin-tza zehatzek bakarrik frogatzea lezakete gobernariaren borondate ona.


Espainia, European dauden bezelako demokrazia bat izan den ala ez, politikaren plazan diharduten erakundeen eta indarren eraginek zertuko dute. Erregimenaren barruko erakundeen arteko jokoak: Gobernuak, Erreinuaren Kontseilua, Kontseilu Nazionala eta Gorteak, ultraeskuinetik ultraezkerre bitarteko alderdien eta taldeen jokabideak eta, nola ez, populu osoaren portaerak.

ANDONI SAGARNA

IRAKURLEOI

ANAITASUNAREN 311. zenbakia zure eskuetara gure errurik gabe beranduegi iritxi zaizu, transporteen greba dela eta.

Beraz, ulertu ahal izanen duzula sinesturik, ez dela berriro horrelakorik gertatuko uste dugu. Mila esker eta barka.



KANTZERRA KIMIKAREN ETA SATSUDURAREN ONDORIO

Duela bostpasei hilabete, ANAITASUNA hontako 298. zenbakian, Medikuntz Hiztegirako Mintegikoek kantzerrari buruz eginiko lantto bat agertu zen. Gogoz irakurri nuen, eta, egia esan, horren antzeko beste artikuluren bat noiz argitaratuko duten zain nago. Osasunari buruzko gorabeherak eta oinarrizko informazioa guztientzako interesgarriak direlarik, bide hortatik saia litezen eskatuko nieke. Ba dakit lanean ari direla, eta horregatik, esperantzarik ez zait falta.

Dena dela, bitartean, eta nahiz eta ni mediku ez naizen, ausartu eginen naiz, kimikak eta satsudurak kantzerraren sorreran duketen garrantzia frogatzen duten zenbait datu agertzera.

Inguruko baldintzak eta kantzerra

Gaur egungo ikertzaile gehienek eritziaren arauera, inguruko baldintzak dirateke, kasurik gehienetan, kantzerra sorterazten duten kausak. Haien ikerpenen arauera, kantzerraren guztietarik 80 %, guti gorabehera, modu hortan sortuak dira.

Eta zein da inguruko baldintzek kantzerraren sortzean duten zerikusia? Hara! Industri aitzinamenduari batera, kimikak ere aitzinamendu handia (izugarria esaneri nuke nik) ukan du. Gaur egun, milioi erditik gora kontu daitezke, munduan erabiltzen diren konposatu kimiko desberdinak; gehienak gizonak asmatuak dira, hau da, aurretik Naturan ez zeudenak. Eta horietatik asko eta asko, eze luzetan gizonarengan eta Naturan ukan dezaketem eragina ezagutu gabe, erabili egiten dira eguneroko bizitzan.

Konposatu kimiko horietariko batzu eguratsera jaurtikitzen dira lasaiki, lantegietako kebidetan gora; beste batzu hibai edo itsasoetako uretara jaurtikitzen dira; beste batzu janariei erantzen zaizkie asmo desberdinez (kolore egokia emateko edo abarretarako); eta hola.

Gai kimiko berri horiek giza gorputzera heltzen direnean, beronen autodefentsarako medioak funtzionatzen hasten dira. Eta, nola edo hala, eliminatu, deuseztu edo transformatu egin behar ditu; bestela, denborarekin problema gogorak sor baitaitezke gorputzean.

Idatzitakoak irakurrik, ez bide da harrizkeoa, kantzerra kimik produktuen eta satsuduraren ondorioa dela entzutea. Eta horixe da, hain zuzen, amerikarrek eginiko Kantzerraren Atlasetik eta frantsesek Lyon-eko *Centre International de Recherches sur le Cancer* delako antolamenduan eginiko lanetatik ateratzen den ondorioa. Azterketa estatistikoen bitartez, kantzerraren eta kimik industriaren kokatzearen artean elkarkidetzeta handia degoela frogatu izan da.

Zenbait kantzerraren sortzaile

Baina, jeneralki hitz egiten ari gabe, zenbait kasu konkretu aipatzea hobe dela uste dut.

—Etan batzu egitean (laranjetak egitean, adibidez) erabiltzen diren ziklamatoak, oso arriskugarriak dirateke. Hamar astetan radio ziklamatoa hartzeri egon ondoren, esperimenteratzen erabili ziren animalietatik erdiei, puxika-kantzerra sortu izan zitzaizkien. Esateko batuetan debekatutarik dago ziklamatoen erabiltzea; baina, hala ere, European marketki erabili daitezke (eta erabiltzen dira) ziklamatoak aipaturiko erabileran.

—Ile tinkariak ere kantzerraren sortzaileak dirateke. Kuzko eginiko ikerpenek, hori pentsatzera garatzen behintzat. Eta New York-eko mediku batek (Nathaniel Shafer izenekoak, prezeski) oraintsu argitaratu duen estatistika ikusi ondoren, ileak tindatzeko gogoa erabazteko duko zaie nonbait emakumeei: Bular kantzerra sortzeko 100 emahumeren artean, laurogei ta hamazortzi kantzerraren sortzaileak dirateke. Tinkariak erabili ohi zituzten.

—Petrolio errefinategi inguruetatik satsuduraren kausak bertako lurretik hartzen diren produktuek, normalean, ez dira hain onak. Hala ere, no hamar aldiz bentzopireno gehiago edukitzea erabazteko daitezke. Eta, antza denez, gai kimiko hori kantzerraren sortzaile da.

Ikusten den bezala, kasu hauetan guztietan, artifizialki sortzen diren gai kimiko batzuk, eta satsudurak berak, zerikusia izan dute zenbait kantzerraren sorreran.

“Muta-test” delakoa

Oraintsu arte, mediku askoren ardura bakarra kantzerraren sendapena lortzea izan da. Haien jatorriari buruz, ikerketak eta eritziak ez daude guztiz argi. Hala ere, geroari begira, kantzerra sendatzeaz gain, eritasun hori sorterazten duten kausen aurka jokatzeko ere eduki beharko da kontutan.

Ba dakigu, jakin, zenbait gai kimikoren eraginez, kantzerraren sortzaileak sor daitezkeela. Konposatu kimiko gehienek eragile berririk ez dugu, ordea. Oraintsu erabiltzen hasi den “muta-test” izenekoari esker, dirudenez, zeintzu gai diren kantzerraren sortzaile jakin daitezke. Test hortan, hesteetako bakteriak erabiltzen dira. Bakteria horiek mutaketak pairatu dituzte beren egituran zenbait konposatu kimikoren eraginez. Eta, ikusi denaren arauera, ba dirudi ezereko kimiko berberok (hau da, mutaketak sorterazten dituzten kantzerraren sortzaile direla).

“Muta-test” horren bidez lortu diren geratzuek pentsatzera bultzatzen gaituzte behintzat. Kasu batean, dezagun Commoner izeneko ikertzaileak eginiko ikerketak. Ikertzaile honek 92 substantziari aplikatu ukan die aipaturiko test hori. Aurretik ba zekien segurtasun handiz, 92 horietatik 50 substantzia ez zirela kantzerraren sortzaileak eta beste 42 kantzerraren sortzaileak zirela. Test hori egitean, kasu bitan ez ziren beste guztietan, behar zuten erantzuna lortu ukan. Beraz, ba dirudi test hori nahiko fidagarri dela.

Ondorioak

Aipaturiko “muta-test” hori, oraindik perfekzionatu behar du gabe dago; baina etorkizun hurbil batean hobe eta fidagarriago bihurtuz joanen dela pentsatzeko gaituzte. Eta hori lor dadinean, edozein produktu merkaturatu baten eta zabaldu baino lehen, aurretik test hori gaituzteko beharko daiteke. Eta testaren arauera produktu hori arriskugarri gerta eta ager badadi, debekatu eginen daiteke merkatal banapena.

Bitartean, milaka produktu banatzen dira merkaturatu eta hainbat satsukarik satsutzen dute gure inguruko egitea eta Natura; eta guk ez dugu haien arriskugarritasunari ideiarik ere ez. Hori jakiteko esperimenterik egin daiteke. Esperimentu bakarra, gizonekin egiten ari dene da: hainbat gizonok gara —produktu kimikoen kontsumatzaile eta sortzaile— gaituzteko dauden eskualdeetako bizilagun garen aldetik —merkatu mailan auzera eramaten ari den esperimentu mugatuaren— hornon kukiak.

“Industri aitzinamenduari ondaindu behar zaion zerga hori” diote batzuk. Zer gertatuko ote litzateke, test hori jarraikiz, hainbat eta hainbat gai kimiko debekatuko bala? Lantegi askok beren ateak hitsi beharko lituzkete noski. Baina gizonen osasunak ez ote du, gizarte kontsumista horien merkaturak dizkigun helburuen lortzeak baino garrantzi handiagoa? Galdeok, nik neure buruari egiten dizkio. Ba ez du?

J. R. Eder

ERLIJIOAZ SOLASEAN

—Beraz, estraina dugu gaur ANAITASUNako plazan. Hots egin didate eta nik baietza eman. Horra guztia.

Erlijioa izanen da gure solasaren gaia. Egia esan, erantzukizun larri baten pisua sentitzen dut bide honi ekiterakoan, erlijio alorra axola handikoa baita niretzat. Halere, bidea ibiliz egiten omen da eta ibilian bertan gauzak hobeki ikusiko ahal ditagu. Dena den, gaurko Euskal Herrian gai honetaz agerian ihardun beharrak ba du erantzunbehar berezirik.

—Neure solasean, ez nuke sermolari garratzaren plantarik hartu nahi. Ni ez nator hemen ongi erre eta biribilduriko opilak partitzera. Bilaketa batean dabiltzanak laguntzea atseginago litzaidake.

Bestalde, ez nuke desertuko predikari merkea gertatzerik nahi ere. Nahiago nuke elkar hizketa bizi baten gidari eta zuzpertzaila izatea. Bakar hizketak eta zaparradak, aspergariak eta badaezpadaokoa izateaz gain, antzu samarrak gertatu ohi dira eremu honetan. Eta ordua hori zergatik ote den kontuak ateratzen hasteko. Erlijio hauziak, gizakiari barrenbarrenean ukitzen dionez gero, berezkoa du elkar hizketa eta solasa.

—Erlijioari, gero eta gehiago, bilaketa lantsu baten antza hartzen diot, etengabeko bilaketa batena, hain zuzen ere. Bilaketa hori, ordea, hauzo lanean eta taldeka egitea komeni da, gizakiaren desirak eta galdeak haintzakotzak hartuz. Bilaketa horrek nora eramán gaitzakeen? Hortxe dago kuxka.

Nolanahi ere, bilaketa horretan gauden tokitik hasi beharko dugu, amets urdinetan burua gaitzeke. Gizaki eta herri bezala bizi dugun historiatik abiatu beharko dugu inolaz ere. Geure egunoroko errealitatean barneratzen ikas bageneza... Izan ere, erlijioaz mintzatzea eta arduratzea ez da, bidetxidid erosotan barrena, beste monbaiteko planeta ezkututara ihes egitea. Erlijioaren hauzia ere, gaurkoan eta hemengoan zangoak tinko ditugula planteatu behar da.

Hortaz, fedegintza eta herrigintza, biak hertsiki loturik begitatzatzen ditut ezinbestean. Herrigintza serio baten hildoa pensatu eta mamitu behar da fedegintza, hots, erlijiozko bilaketa. Bestelako planteamenduak eta jokoak ihesbidezko ataka errazak gerta litezke.

—Norentzat arituko naizen? Horrialde honetara hurbil daitekeen edonorentzat, baina fededunentzat bereziki. Halaz ere, erlijiozko kezka gizakiari hondo-hondoan dagokiona izan

ki, giza-emakume oro izanen dut solaskide. Ezin nezake inortxo ere bazterrerat utz. Gainera, badakikezu fededun eta fedegabearen arteko mugarriak ez direla hain ezaguterrazak. Areago, kristauak berak ere sinesgabeko bat darama bere baitan, fededunarekin etengabeko elkar hizketan. Aurretiazko plangintza orokor eta zehatzik ez dut burutu oraino. Ez dakit mereziko lukeen ere. Dena den, Elizari buruzko albisteak izanen dituzu batzutan, gurean esanahi eta ezten berezia ukan dezaketen berriak. Elizari gagozkiola, geure Herriko Elizaren ibilera eta pausoak ere hurbiletik jarraitu beharrean gertatuko gara, noski. Beste batzutan, gogoeta luzeagoak emanen ditugu, gaurko Euskal Herrian fededun izateak planteatzen duen prolemaren bat kritikoki jorratuz. Beti ere, erlijioaren eta Elizaren dimentsio sozio-politikoari adi egonen gataizkio, guzti horrek katekesi mailan eta pastoralgintzan dituen ondorenak ahortzi gabe.

Ez da erraz alde zuzenetik esatea, horrialde hau zertan mamituko den. Hori, hein handi batetan, irakurleen eta beste lankideen esku ere badago eta, horrexegatik, ikuskizun da. Hemen, ene ustez, dinamika bat sortzea da beharrezkoen. Hortarako, beste zenbait alorretan bezala, jendeari mintzatzeko aukera eman behar zaio erlijioarenean ere. Hizpidea emateak soilik, guk uste baino gauza gehiago mugi ditzake bazterretan. Hain zuzen, gaur Elizaren barrenan egin behar den iraultza nagusienetarikoa hitzaren askatzea da. Zenbait monopolio zahar apurtu beharra dago eta herria bere hitzaren jabe egin. Hitzaren askatzeak beste askazio modu batzuek ere ekar litzake ondorio bidez.

Hau ez da taktika hutsa, halere. Bada zerbait gehiago guzi honetan. Gizonaren eta erlijioaren izaera haintzat hartzeak garrantzitsu bide hau proposatzera. Izan ere, erlijioa hain arazo serioa izaki, barruti horretan darabilgun metodologia bera ezin daiteke edonolakoan izan. Hemen, beste edozertan baino areago agian, gaiak eta metodoak zerikusi handia dute elkarrekin.

—Azkenik —eta ausartzia badirudi ere—, guk hemen Herria eta Eliza egitea dugu helburu, Euskal Herria eta Euskal Eliza. Inoiz gauzak gehiegi nahastea komeni ez bada ere, gure ikuspegitik, bi lanok nahiko bilbeztatuak daude. Elizaren egiteko nagusia eta oinarritzakoa herria egitea dela uste dugu; Jainkoaren herria eta gizonen herria, noski. Izan ere, giza mailako herririk ez dagoenean, Jainkoaren herria bat atean finkatu nahi izatea, ez ote da ameskeria (eta zapalkeria) hutsa? Hortaz, Jainko herria (Eliza) amesten duena, giza herria (herri soila) egiten ere saia bedi. Giza komunitatea haintzakotzat hartzeke, kristau komunitatea eratu nahi izatea, aldrebeskeria itzela iduritzen zait.

Hona hemen, gaingiroki eta nahasian, zenbait zertzelada eta hari mutur. Beude hortan gaurkoz. Nolabait hasi beharra zegoen eta horra jadanik bidea urraturik. Izango ahal dugu, horratio, hemen azkar batean idarokitako burubideak aurrera eramateko aukerarik eta adorerik.

Hori, ordea, elkar lanean egin beharrekoa dela uste dut. Lehen esan bezala, nik hemen akuilatzaile eta solaskide izatea nahiago nuke, beste ezer baino gehiago.

Gaurko hau, hortaz, solaserako gonbita duzu, elkar hizketarako deia. Herriaren boza jasotzea atsegín litzaidake. Berezik, Euskal Herrian barrena, fedegintza eta herrigintza lotu nahian hezurmamitzen ari diren esperientzia eta gogoeten berri ukaitea interesgarri litzateke guztiontzat.

Plataformak modan dauden konetan, hemen ere horrela-ko zerbait egin ahal bagenez...

Jose Akluna

HERMANO LOBOren Zuzendaria ANAITASUNARA!!!

**BERNARDO ARRIZABALAGA
EUSKAL PRENTSAN**

Madrileko prentsan, kazetari gisa, oso estimatua den gizon bat dakargu ANAITASUNARA. IBERIAN ZER sailean haren bi artikulu ikus ditzakezu, eta gero gerokoak. Gurekin lan egiteko gogo bizia ikusi diogu Bernardori.

Duen izenagatik, duen esperientziagatik, egin dezakeen lanagatik, Bernardo Arrizabalaga gurera etortzea esanguratsua da, eta euskal prentsarentzat mesedegarria. Euskal kazetaritzari goi maila bat eman dezaioke Bernardok.

Bere bizitzari buruz eta batez ere, euskal kazetaritzaren urte honetan, kezetaritzaz zenbait galdera eginaz hurbildu gatzaizkio:




1 *Emaguzu zure bizitzaren xehetasun b
bait, batik bat zure kazetaritza munduko esp
rentziaren berri.*

2 *Madrilen egon arren, Euskal Herri
begira bizi izan zinela ba dakigu. Orain garbi
ikusten dugu hori. Esaguzu zergatik itzuli ra
hona. Emaguzu zeure barne-deien eta mail
zioen berri.*

3 *Kazetari bezala Espainiako prentsan
guna zaren horrek, zer egin behar duzu or
euskal prentsa idatzian? ANAITASUNARA*

4 *Euskal prentsez mintza gaitzen
Dena nahasian. Euskal egunkari baten esan
ba dagoela ba dakizu. Euskal aldizkariak
tzen eta aldatuz ikusten dituzu. Nondik jo
ko lukete, zure ustetan?*



1. Martinan jaioa nauzu, duela mende erdi larri bat. Eta nere familia alderdi guztietatik oso euskalduna zenez gero euskara besterik ez zekienik ba zen gure etxean!), argi dago nire zaindaria zen lehenbiziko -eta betikoa izan behar zuen- haurkuntza. Baina zergatik jarrai arrenkura dariola datozkidan gogoratan haur buruz? Herri zapaldu baten seme garenok historia rigatgauri bakar bat daramagu.

Zire galdere denak, edo gehienak behintzat, prentsa ingururik datozkidanaz nere erantzunak ere hortik zuzendu beharko dizkizut. Kazetaritza lanetan gazte hamar hasia naiz, jeltzita nintzenetik, noski. Auzulide batzu agertuko ditut. Abside horietatik ikasleak aldizkari izan zena). **Monsejoro** (ez zara izenik gabe bermitu gendena). Egunkarien artean, ordea, **La Gaceta del Norte**, bere "**Página Cinco**" iamatu kura asmatu eta ardurara eman ahal izan gendun artean, eta, geroxeago, Valladolid-eko **El Norte de Castilla**, Miguel Delibes-en zuzendaritzapean igandero ateratzen zizuten "**El Caballo de**

Troya" izeneko horrietan... eta abar. Delibes berak oraintsu esan duenez, garai hartako "gazte haiek" jokü ederrik egin dute gerora, kezetaritzan edoeta idazlan arloan. Begira han nituen lagun batzu: José Jiménez Lozano, Manuel Antel Leguineche, César Alonso de los Ríos, Fernando Altés, José Martín Descalzo, Francisco Umbral, Miguel Angel Pastor, Antonio Corral, eta abar.

Nere bizimoduari aldaketa "kopernikanoa" eman zion erabakiak -sekularitzeak halegia- (arteak, holakoetan diskrezio apal bat beharrezkoa baitzen), Madriler a bultzatu ninduen. Eta Madrilen, "**Filosofía y Letras**" deritxon karrera eta gero "**Periodismo**"koa burutu ondoren, kazetaritzako bidea hartu nuen. Bide hori azaltzekotan, aldizkari batzuren izenak aipatuko nituzke: **Tula-Guia**, **Mundo Joven**, **Triunfo**, **Don Perro**,... eta azkenaz, **Hermano Lobo**. Baina, denen artean azkenak du, esperientziaren aldetik behinepehin, aberastasunik handiena: "Anai Ocho" horren arruz, sarritan aurkitu bainaiz irakasbidetzat har genitzakeen aukera eta hesfuesunetan.

2. Zergatik orain atzera Euskal Herrira? Ez nuelako inoiz Madrilen ezar galdurik? Eta arratsean atzera datorren haurtzari zergatik datorren galdetzen bezala, begiak zabaldu eta bat-batean hitz-gabe bihurturik, galdera horren ezereza deliha darduko duelako! Oraindik gehiago: ez naiz haurra, gizon bat baizik, eta bere etxea sutan, garretan, dela jakinik, arineketan

datorren gizonaren irudia litzakete nere kasurako egokiagoa. Nere eskuetan ontziarik edo urik gabe banator -hau da, euskaraz jabetu gabe- edo beranduegi heldu banaiz -nere lehenbiziko hizkuntza birpizteko aukera betiko galdurik, halegia- hobe dut, behintzat, etxearekin batean erre eta bertan hilt.

3. Ikusten duzu ANAITASUNAN idazten hasia neizela dagoeneko? Eta jarraitzeko asmotan ANAITASUNA izan da, gainera, Madrilen izan dudana Euskal Herriarekiko lotura handienetako bat.

dudanez gero (erantzun hauk egitea ere asko kostatu zait, asko). Lantoki hori irabazi egin nahi nuke, gure Herriari zor dudana, eskain ahal diezaiodan. Eta horretarako bidea (bide bakarra eta oso zail zaidana) nondik norakoa den argi eta garbi agertzen zait: bide hori euskal adiltzaren errekalde ugarian sartzen da, eta urtografian zehar, joskeratik aurrera, jarraiturik, istilu berezi den mendi toitorrera zuzentzen ditu gorputz eta arimez lanari lotzen direnak.

Baina zozkharrez, kazetari bezala, erdal idazteremuan izan dugun trebetasunik ezin neizake, oso osorik, euskarara tokialdatu. Euskal prentsan ez dut oraingoz tokirik inarazi, gaur egun ez bainaiz horretarako gauza, euskarara erdi galdurik

Gaur, Euskal Herriari, astekariaren ordua da. Pozik ikusi dut gaurko aldizkariaren berrikuntza. Baina bernezagoko berrikuntza baten premia dugu, profesionaldu beharra, teknika eman beharra. Barne egituretan eta idazlanetan amateurismoa nabarmentzen da, erak, normak falta dira. Hizkuntza ere, pausuz pausuz, literatur kutsua kenduz, periodismoa ekarri behar dugu. Hizkuntza standard, erraz, sinplifikatu bat beharrezkoa dugu, irakurlea euskarara abia dadin.

4. Euskal egunkari bat? Galdera honek arraultzetik ala dilotik hasi behar ote den dilema edo hauzia dakarkit gogora. Goazen pausuz pausu. Beti, baina euskararekiko irazoetan oraindik gehiago, "arduradunak" eta "dirudunak" ez dira bat izaten. "Antipodas" bezalakoak dira biok Orduan euskal egunkari bat lortzeaz dela esaten bada, horretarako dirua prest dagoela argi dago. Diru horrek, euskal ardurarik ez badakar, eta euskal ardura esaterakoan, abertzaletasuna politikan, batasuna hizkuntzan esan nahi dut, beste motibazio ilonen bat dakarrela oso nabari da. Hortik nere beidurrak Zeintzu dira, eta zergatik, egunkari hori ordaintzeko gerturik daudenak?

Euskal astekari on baten orduan dago Euskal Herria, nere ustetan. Astekari baten helburua ez da albisteak biltzea eta zabaltzea, baizik eta azterketa bat, ezeflexio bat, eskaintzea, albisteari tripa ateratzea, manipulazioaren kontrako garbiketa bat egitea. Premia hau areagotu egin ohi da zapalduetan. **Cambio 16** delakoaren antzera, demagogian, sensazionalismoan eta oportunistoan erortzen den astekari bat ez. Eredu jaritzekotan, euskal **Triunfo** bat esango nuke nik.

Goiz da oraindik egunkari batentzako. Euskal egunkari batek euskal telebistaren eta irratiaeren atzetik etorri behar luke, mass media handi hauen bidez euskarara hedatu eta gero.



BITXIA

ESKU LANETARAKO GAIAK

*DOCTOR AREILZA, 55
Telf. 431 72 93
BILBAO - 10*



Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.


Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzeko zailtasunak behar bada,
guztionezko baina berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela bideratzen.
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua.
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO





HIZKUNTZA

HIZTEGIA

AGURAIN: **Salvatierra**, arabako herri bat.

AISA: aise, erraz.

AKIZE: Auch, Akitaniako herri bat.

ALEGIKERIA: **ficciones, fábulas**.

APEZPIKU: **obispo**.

BEGIRALE: espectador, curioso.

BEUDE: egon bitez.

BEZUZA: **regalo**, cadeau.

BIDENABAR: bide batez.

BILBEZTATU: **entramado**.

BORDELE: **Burdeos**.

BURKIDE: **camarada** (buru + kide).

BURRUKATASUN: **combatividad**.

DERRAGUN: esan dezagun.

DESKOMEKA (TU): **excomulgar, -ado**.

DESKOMEKU: **excomunió**n.

EDIRO: eriden, idoro, aurki (tu).

ELAKA (TU): mintza (tu), hitz egin.

ERAIKUNTZA: **edificación, construcción**.

ERAILKETA: hiltze, garbitze.

ERHAN: (erhate, erhaite, erhale, erhaile) hil.

ESKAKIZUN: **reivindicación**.

ESNA (TU): itzarr (i), itzar (tu).

ETSIPEN: **resignación, aceptación, desaliento**.

EZEN: zeren, **pues**.

GAITZ: eskerga, **enorme**.

GAURDANIK: gaurtik aurrera.

GIZAZALE: **humanista**.

GOGO ZAN: nahi izan, gura izan.

GUPIDA: **compasión, consideración, contemplación**.

GUTUN: eskutitz, karta.

HAGITZ: guztiz, oso.

HILTZER: hiltzear, hil zorian.

IDAZTEREMU: literatur arloa.

IDAZTI: liburu.

IDORO: ikus **ediro**.

IGORTZE: bidaltze.

INONDIK ERE: **sin duda** (baiezko esaldietan).

JARRAIKI: segi (tu).

JAZO: gerta (tu).

JORAN: **afán, deseo vehemente**.

JUDU: **judío**.

KAUSI (TU): aurki (tu).

KAZETAURREKO: **ante la prensa**; kazetaurreko elkarrizketa: **rueda de prensa**.

KIROLDEGI: **estadio deportivo**.

KONDARI: **narrador, cuentista**.

KONDU: **cuento, narración**.

KONPROMEZU: **compromiso**.

KONTRAKOLPE: **contragolpe**.

LOHIHARTZEKO: **buzo, bombacho, mono**; langileen jantzia.

MEHATXU: **amenaza**.

MENDIMARTZANA: **Mont de Marsan**, Akitaniako herria.

MENDRE: ttiki; den mendreena: denetarik ttikiena.

MERKATAL: **comercial**.

MERKATALGO: **comercio**.

MOETA: mota, mueta (lat. **moneta**-tik dator).

MUNTA: garrantzia.

NONBAIT: antza, dirudienez.

OHIA: izandakoa, **ex-, antiguo**.

PABE: **Pau**, Akitaniako herria.

PASARTE: **pasaje, párrafo de un texto**.

PETRAL (DU): gaizto (tu), gaizkoa (tu).

POLYKIROLDEGI: **polideportivo**.

PORROT: **fracaso, quiebra, bancarrota**.

PUXTARRI: **canica, bolita**.

SALNEURRI: prezioa.

SOLASKIDE: **interlocutor**.

SUPERBIZIPEN: **supervivencia**.

SYINDIKALGINZTA: **sindicalismo, construcción sindical**.

TARBE: **Tarbes**, Akitaniako herria.

TXOTXONGILO: **títere, marioneta**.

UKAPEN: **negativa**.

URLIA: **fulano**, un tel.

ZABALKUNDE: **difusión, publicidad, propaganda**.

GUTUNAK EUSKARAZ

Gure inguruaren euskalduntze bilakabidean, gauzarik sinpleenak egitea ahanzen zaigu sarri. Eta horrela, hainbat arlo uzten dugu ukitu eta euskaldundu gabe. Hauetariko bat gutunen arloa dateke.

Egin ditzagun kontuak. Zenbat gutun idazten dugu hilean edo eta urtean barrena? Adiskideei, gurasoei eta senideei; merkatal gutunak; aldizkarietara zuzenduriko gutunak. Zer esanik ez, horrelako kasuetan ere euskara erabili behar dugula uste dut. Baina, horrela egiten ote dugu? Oraintsu arte behintzat, sarri ikusi ukan dugu bestelakorik. Hitz egitekoan etxean erabiltzen zen hizkuntza bakarra euskara izan, eta soldadutzan egonik gutunak erdaraz idaztea, normalizat hartua izan da. Baina, zuzena ote da egoera hori? Normalizat hartu behar ote dugu? Ez horixe!

Dena dela, gutunak euskaraz ongi idazteko, aurretik alfabetatze beharra dago. Hauxe dugu, hain zuzen, euskaldunok kultur bidean dugun lanbiderik premiatuena: alfabetatzea.

Alfabetatzeaz gain gutunak idazterakoan, ba da, ordea, bestelako arazorik, eta ondoko hauxe da: Inguruko hizkuntzetan gutunetan erabiltzen diren hasteko eta bukatzeko moduak normaldurik daude. Era honetan, eredu batzu daude, eta gutuna idazten ari denak, gehiegirik pentsatu gabe, nola hasi eta bukatu behar duen da daki. Hori abantaila handia da, zeren jende arruntak ez baitu esaldi bikain eta egoikiak asmatzeko gaitasunik.

Gauzak horrela daudelarik, eta erdal poeta batek zioenez "bidea ibiliz egiten dela" kontutan harturik, nik neuk ere

horrelako eredu batzu proposatuko ditut, jendeak non aukera ukan dezan. Eta lehen urrats batez, bi multzotan sailkatuko ditut gutunak:

- Adiskide edo senideen arteko gutunak.
- Merkatal gutunak.

Eta artikuluxka honetan lehen multzoko gutunetarako ereduak aurkeztuko ditut. Besterik gabe, beraz, hona hemen zenbait hasteko eta bukatzeko era.

Donostiatik, 1976.eko otsailaren 20an.

Gasteizetik, 1976.-II-20.

Baiona, 1976.-II-20

Hasteko ereduak:

- Kaiso adiskideori.
- Adiskideori, agur.
- Emazte maiteori, agur.
- Kaiso adiskideok.
- Adiskideok, agur.
- Guraso maiteok, agur.

Bukatzeko ereduak:

Besterik gabe, zure erantzunaren zain geratzen naiz. Bitartean, har ezazu besarkada handi bat zeure adiskideonen-gandik.

Goraintzirik beroenak adiskide guztiei eta musuak haurrei. Besarkada beroak.

Goraintziak ezagunei eta besarkada beroak zuri. Ahanzen ez zaituen.

J. R. Etxebarria



AISIAREN ORDUA

LIBURUAK



ASKOREN ARTEAN (X. Kintana eta J. Tobarren hitzaurre batez)
Euskaldun (berri) ekin euskaraz
CINSA, Bilbo, 1975

Joan den urteari bukaera eta urte jaioberriari hasera bikaina emanez, hara non heltzen zaigun liburu irakurterraz hau. Inkesta modura moldatua, bertan, hainbat ahalegin, izerdi eta lanez beren buruak euskaldun bihurtu duten herkide batzuren eritziak agertzen dira. Hitzaurrean esaten denez, " moeta, maila eta ideologia guztietako euskaldun ikasitakoengana zuzendu ginen ", baina, " deituak izan diren guztiek ez dute erantzun nahi ukan ". Modu honetan, liburuan 31 euskaldunen eritzi eta bizitz gorabeherak azaltzen dira. Horrela, liburu osoa kritikatzeko oso lan zaila dateke, inkestatu bakoitzaren erantzunak banan banan aztertu beharko bailirateke. Eta, egia esan, batzuren ere merezi dute azterketa sakona egitea. Dena dela, harrigarria da zenbait punturi buruz agertzen den erizkidetasuna, eta, edozela ere, horrek zerbait adierazi nahi du.

Kritika egiteko, moldatzaileen lana hartuko dut kritikagaitzat, berorik izan baitira, liburu hau posible bihurtzeko baldintzak antolatu eta prestatu dituztenak. Eta zatika abiatuko naiz.

Hasteko, moldatzaileek errespetatu egin dituzte inkestatuen lanak. Eta hau ez da guti, bai baitakigu, behin baino gehiagotan haiekin bat ez datozela. Horretaz, honela dio, 33. orria aldean datorren oharra: " Textu guztiak, bidali dizkiguten eran ematen ditugu argitara, bakoitzaren gustu, joera eta idatz tankera bereziaren lekuko gisa ". Euskal-

dunok elkar errespetatuz baino ezin egin dezakegu la aurrerantz uste dudalarik, poztu egiten naiz puntua da hori.

Moldatzaileek ardura bereziz aukeratu izan dituzte sarrera emateko hitzak, liburuaren izenburua eta hitzatzea. Aukeratuak ezin egokiago eta zehatzago direla esatera ausartuko naiz. Eta jakinagorik direlakoan, haien aipamena egiten dut herriak.

Sarrera gisa datozen Arturo Kanpionen hitzak euskaldun guztioi pentsa erazi egin beharko ligitela uste dut. Honela zioen Kanpionek: " Orduan lotsatu egin nintzen zainetan euskaldun odola emateaz eta euskaldunen jatorrizko hizkuntza jakiteaz ". Era berean, harrigarri dateke 1636. urtean Klaberiak eginiko bertsoa (liburuaren hitzaurreko aukeratu).

Liburuaren tituluz eta azalaz, zer esan? Liburuaren azalak sinbologia sakona darama baina Bertan, denboraren etorriaz erdal eta euskal txandaren leku hartzea adierazi nahi da. Behe aldean hau da, iragan aldietan — erdaraz gehiena; goi aldean, aldiz, — hots, etorkizunean — euskaraz gehiena. Horrela ailtz! Bestalde, titulua hiruzpalau eratan irakur daiteke, guztiak ongi neurtuak: " euskaldun berri euskaraz ", " euskaldun berriekin euskaraz " eta " euskaldun berri, ekin euskaraz ". Edozela ere titulu honek beste liburu bat dakarkigu burura erdaraz idatzia berau: " Hablando con los vascos " izenekoa hain zuzen. Eta honi kontrajartzen gaituz on bestelako tesi baten defendatzaile dela ematen du. Azken urteotan asko eztabaidatu da puntua eta moldatzailetariko bat, Xabier Kintana prezelego gora eta behera aritu izan da eta ari da, euskal gutuz erdaraz idazteko jokamodua kritikatu; eta liburu honetan ezin esan daiteke, exenpluz prezelego tzen ez duenik.

Lot nakion orain hitzaurrearen aipatzeari, moldatzaileek deituriko " hitzaurre—manifestu gisa " hitzaurrearen " aipatzeari. Axularrek Gero liburuaren sarreran erabiltzen duen moduaren analogia batez hitzartzen da hitzaurrea, eta berau sei puntutan zatituko dago.

Lehen zatian euskaldun " berrien " historia ari dira, zenbait euskal idazleren izenak aipatzen.

Bigarrenean, euskaldun hitzari bere jatorria esangura itzuli nahiz, eta euzkotar hitzaren aurka beronek adierazten duen kontzeptuaren aurka ari dira. Horrekin batera " euskararen ikasi—ezin izan na " delako mitoaren sorrera aztertzen dute (gogor giroki), eta haren aurka gogor egiten dute. Honek honen eta euzkotar hitzaren arteko iotura nolatan ezartzen delarik, puntu hau oso eztabaidatua izan den delakoan nago.

Hirugarren kapituluan euskalduntasunaren definizioa namika aztertzen dute moldatzaileek. Ene eritzi bertan agertzen dira pentsabiderik mamitsuekin. Esaten dutenez, guztion euskalduntasunak " bertan nespen positibo eta kontziente bat behar du, irakur-

nen badu bederen ". Eta aurrerago, " gaur egun euskara ez jakitea Euskal Herrian jadanik kulturarik ezaren ezagugarria bat da sektore askotan, eta zenbait buruzagi herritar publikoki lotsarazteko aski motibo ere bai ". Honela hainbat harrikada jaurtikitzen dira izenik aipatzeke, baina interesatuek ulertzeko moduan. Zer esanik ez, bai hitzaurrean eta bai inkestari egin zaizkion erantzunetan, behin baino gehiagotan lerroartean irakurtzen jakin behar da. Horretan euskaldunok ariketa asko eginik dugunez, ez dut uste betaurrekoren premiarik izanek dugunik.

Laugarren puntuan eta euskaldun berri delakoaren adjektiboaren diskriminatasuna salhatu eta arbuia ondoren, euskaldun ikasien pentsaera berriaz ari dira. Kapitulu honetan, euskaldun ikasiek ekarritako indar berritzea zertan datzan aztertzen dute, zenbait alderdi on eta txar aipatuz.

Bostgarrenean, euskaldun hauek euskal literatura modernoan ukan duten eragina aztertzen dute arinki. Ni neu arriturik geratu naiz, egia esan, ez bainuen horrelako usterik, eta pozgarri eta esperantzagarri gertatu zaidala esan behar dut. Lizardiren aipamena, gehien hunkitu nauena izan da, bertan euskaldun askoren kasua ikusten bainuen isladaturik. Ba dira euskaldun asko, neu ere nolabait berranean nagoela, "ttikitan euskara jakin, mutikotan erdi ahantzi eta gaztetan berriz ere eskuratu" dutenak. Erdi ahantze hori bortxa erazi duten kausen artean, Euskal Herrian egonik erdalkiro aritu izan diren eskola-ikastetxeen eragina ez dateke makala. Eta horregatik, hamabost-hogei ta hamar urte bitartean, erdipurdiko hainbat euskaldun dago euskal herrietan. Lizardiren exenpluari jarraikiz, horik guztiok euskararen alde bihurtuz eta euskal arloan osatuz, etorkizunean bestelakoa izan daiteke gure egoera. Horik euskararako galduz, ordea, gure egoera okerragora lihoake. Alfabetatze kanpainak ba dukete horretaz lanik!

Etxaparereren antzera, Sautrela izeneko kapituluaz bukatzen da hitzaurrea. Modu poetikoz dagoela, oso atsegin handia hartu dut hori irakurtzean.

Liburu honek, dudarik gabe, hainbat pentsabide emango du. Euskaldunontzat zirikatzaile eta lan hoberen egiteko akuilatzaile izan behar duela uste dut. Euskaldun hauen bultzadaz, euskarari berrospena ematera saiatu behar dugu. Euskara idazteko, sakontzeko, erabiltzeko, bizitzeko erantzunkizuna erakutsi digute X. Kintana eta J. Tobar adiskideek. Eskerrak eman beharko dizkiegu guttienez, orain arte bezala "gure herria gero eta Euskalago, gero eta Herriago egiten", lanean iraun dezatela erregutuz.

Ramon Garai

LIBURU BERRIAK

PACHECO M. A. eta GARCIA SANCHEZ, J. L.

Nire lehen liburuak.

EDICIONES VASCAS (Serrano Augusta, 4) Donostia 1975.

Euskara batuan. Tituluak adierazten duen bezala, irakurtzen ikasi berri diren haurrentzat egin dira liburuok, oso ongi presentatuak eta kolore guztietan eginiko irudi ugariekin. Hamar liburu ezberdin dira eta bakoitzaren prezioa 200 pezetakoa da. Bilduma osoa erosi-rik, gordetzeko kutxa bat ematen dute.

LETAMENDIA, Juan Antonio.

Euskara 6.

GERO, Bilbo, 1975.

Euskara batuan. Ikastoletan euskara praktikatzeko liburua, oso ondo presentatua. 176 horrialde.

FERNANDEZ, Boni, eta GEREÑO, Xabier.

Txistu Metodoa.

CAJA AHORROS VIZCAINA, Bilbo, 1976.

Euskara batuan eta gaztelaniaz. Txistua nola jo erakusten du. Hainbat ariketa musikal du eta doinu ezagunen bilduma bat. Hamar mila aleko lehen argitalpena agortu ondoren, aurkezten diguten bigarren edizio honek beste 10.000 ale ditu. Dohainik zabaltzen da. Eskatzeko: Caja de Ahorros Vizcainaren bulegoetan Bizkaia osoan, eta bere zentrolean Bilbon (Plaza de España, Bilbao-1).

LERTXUNDI A., ARRIZABALAGA, I., eta MARTIARTU M. L.

Irakur.

GERO, Bilbo, 1975.


Hiru liburu dira, honela: Irakur 2, 140 horrialdekoa; Irakur-3, 140 horrialdekoa ere, eta Irakur-4, 152 horrialdekoa. Denak euskara batuan idatziak daude, irudi ugariz apaindurik, eta ikastoletan euskaraz irakurtzen ari direnen lagungarri izan nahi dute.

MUJIKA, Luis Mari.

Hitzak ebakitzean

KRISELU, Donostia 1976.

Euskara batuan. Poema ausartak: "Egia esateko, herriaren alde gezurra kolpatzeko, prejuiziorik ez dut". Ba dirudi poema bukolikoaren garaia pasatu dela euskal literaturaren memento honetan eta eguneroko problematika hartzen dute gaitzat egungo poetek. Gustura irakurriko den liburua. 144 horrialde.



URREZKO



ASTABELARRIAK

de "Sarriko", en Bil-y trató de cortar la dirigentes socialistas "Gora Euskadi Askatuenes de "Eusko Ugari", nente era coreado por tentes al acto. Numes de este grupo pro-
ón, con gradas y can-las, podían leerse nu-
artas: "Aska tasuna. no aren alde JSE y diendo la mesa, desde an los líderes del par-

c
d
tr
si
fa
el

h:

el
b
c
d
te

Ale honetako astabelarri urreztatuek ba dute jabea: BIO 16. Greba apurtutan hainbeste dakien aldirkaria zuzen. Aldizkari horretako asteroko vedetteak, Felipe kal Herrian zehar egin dituen hitzaldi zaratatsuetan, baste jendeak "Eusko Ugari" kantatzen omen zion, bai eta "Tasuna moduko hitz estrainioak esan ere.

Izan ere, Cambiokoek ez bide dute ulertzen hain izan arren, batera hain exotiko zaien Herri honen hizkuntza Guk ordea bai ulertzen ditugula Cambiokoak!

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Er. 7. ean

Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Aldizka agertzen den kasu (artikuluarekin).—2: Nota musikala. Umea (alderantziz). Kontsonantea.—3: Hegaztiek dituzte (alderantziz eta gurean). Ogia egiten duena.—4: Konposatu kimikoen moeta (artikuluarekin). Gipuzkoako zenbait herritan baietz edo erantzuteko galderetan erabiltzen den partikula.—5: Kontsonantea. Izenorde pertsonala. Kontsonantea. Esan aditzaren forma (alderantziz).—6: Zerbait egiten iharduki. Adorezko hitza (alderantziz). Kontsonantea. Bokala.—7: Funtzioa.—8: Ezetza eman. Erregela (alderantziz).—9: Zintzoa (alderantziz). Epel hitzaren superlatiboa (artikuluarekin).—10: Zintzoa jioetan, zeremoniak egiten dituen (artikuluarekin). Hitza hitzaren aurkakoa (alderantziz).

Goitik behera. 1: Libertatea (artikuluarekin).—2: Nekez egiten dena (alderantziz). Karta jokoa (alderantziz).—3: Kontsonantea. Ahoan dugu (artikuluarekin). Bokala.—4: Antza (alderantziz). Osoaren parte (alderantziz).—5: Gauza batetan dagoen tsunea. Arrain moeta bat (artikuluarekin).—6: Errepa (alderantziz). gorotza. Garaua, bihia (artikuluarekin). Bokala.—7: Aurreko zuloa. Zerutik erortzen den ur kristaldura (alderantziz eta gurean). Kontsonantea. Literatur moeta bat (alderantziz eta gurean). Bokala. Kontsonantea. Izan aditzaren forma. Kontsonante baten izena (alderantziz eta artikuluarekin).

TXOKO EDER Jatetxea

Menestra izugarriak,
legatz solomo eta
biper bete itzelak!!!

Barrenkale Barrena, 6
Bilbo Zaharra



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas
tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-
tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-9

ALFABETA- TZEN



1

Kaixo, ikaskide!

Hemen duzu ALFABETATZEN lehen liburua. Lehen maila hontan, eguneroko gai arruntak erabiliz, euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsi nahi dugu.

Berton aurki ditzakezu: euskalkien arazoa, euskararen teknikoaren erabilketa, eguneroko gorabeheren euskaldunketa, eta abar.

Arrasateko Teknik Ikastegiari esker egindako liburu hau euskuratu nahi baduzu, eska ezazu helbide hontara:

Editorial Cinsa — «Alfabetatzen» — Pelota, 4-1. — Bilbao-5.


LARRESORO

EUSKARA BATUA

ZERTAN DEN

JAKIN

BIGARREN EDIZIOA



Zertarako da liburu hau?

- Euskararen batasuna egiteko: horrexetarako da **gaurko** liburu berri hau. Izan ere, bertan jasotzen dira hizkuntzaren batasunerako orain arte Euskaltzaindiak emandako arau eta erregelak.
- Euskaltzaindiaren gidaritzapean bakarrik egin ahal izango da batasun hori: **Elkargo horren lana** jasotzen da liburu honetan.
- 1968-ean hasirik, bide luzea egin du batasunak; baina lanak sakabanaturik zeuden, eta liburu honetan guztioak batera ematen dira.

Zer ematen du liburuak?

- Lehenik, batasunaren historia labur bat dator, eta ondoren Mitxelenak Arantzazuko Bilerari aurkeztatu zion txostena.
- Baina txosten horretako puntuei buruz erabaki asko hartu ditu Euskaltzaindiak, eta hauk ere jasotzen dira puntuz puntu ordenatuta: ezkerreko horrialdeetan Mitxelenarena, eta eskuinekoan —parez pare eta puntuz puntu— geroztik hartutako erabakiak.
- Deklinabide batua dator, laburki, kolore guztietan emana.
- Liburuaren berritasunik jakingarriena **aditz batua** da, edizio ofizialaren ondoren, hemen agertzen baita lehenbadizikoz, gramatika erara emanik.
- Aditz batuaren ikaslana erraztu nahirik, lau koloretan eman da.
- Eranskin bezala datoz, askotan beharko ditugun pertsona izenak eta herri izenak (azken zerrenda hau oraindik ofizialki onhartu gabea), eta batasunaren hiztegia.

Salneurriak

300 pezeta liburudendetan.

10 pezeta merkeago ANAITASUNAREN abonatuentzat.

Eskabideak

JAKIN, Aránzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.

JAKIN, Cuartel, 2, Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena
Kalea Tel.
Herria Probintzia

Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago, guztiok zuri
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

Hemen irabazi guztiak zuretzat dira